



ARGIA



Castillo Suarez

Euskaltzain oso berria

***“Euskaraz poesia liburu
pila bat argitaratzen dira,
baina poeta gutxi dago”***

14-18. orrialdeak



**Nazioarteko
Diru Funtsaren
helburu ilunak**

12 | EKONOMIA



**Segregazioa
eskolaz kanpoko
jardueretan**

24 | AISIALDIA



**Garun-paralisia duen
ikasleari laguntza
ukatu dio EHUK**

36 | HEZKUNTZA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #278
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ANNA GABRIEL (CUP)

HARRO KATALUNIAKO 2017KO URRIAREKIN

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | BALEREN BAKAIKOA
- 20 | SONIA GONZALEZ
- 21 | AINGERU EPALTZA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | ANDREA BARTOLO

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: DAYBELYN JUARES
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


INIGO AZKONA

24 | SEGREGAZIOA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN

Mikel Garciak mahai-gaineratu du gaia erreportaje honetan: baliabide ekonomikoaren arabera segregazioaz maiz mintzo gara eskolan, baina zer gertatzen da arratsaldetako aisialdi ekintzetan? Denek al dute aukera beren zaletasunak eta gaitasunak garatzeko?

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Tori bat eta eman bi: Horrela zukutu dugu Hegoaldea, NDF lagun

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | CASTILLO SUAREZ

“Nafarroan bada erdaraz bizi, baina euskaraz sortzen duen jende asko”

Reyes Ilintxeta

30 | EUSKARA | A. BIZKARRALEGORRA

“Bilbon suposatutzat ematen da gaztelaniaren ezagutza”

Asier Basurto

34 | GIZARTEA | ALAITZ AJURIAGERRA

Emakume ijitoen aurkako indarkeriak hamaika ardatz

Jone Gartzia

36 | HEZKUNTZA

EHUK ez dio laguntza jarri nahi garun-paralisia duen ikasle bati

Mikel Garcia

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA




ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Mendeku organikoa

Ito arte hainbatetan "poltsa" egin, goma aparrarekin bildu, neska laguna atxilotuko zutela mehatxu egin, hainbat egunez erabat inkomunikatuta egon... horra Denis Itxasok goratzen duen polizia militarrik Xabier Aristrain donostiarrari emandako tratua. Hain agerikoa ezen Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gertatutakoa salatu eta otsailean hirugarren gradua eman zioten, 12 urte lau pareta artean egon ostean. Baina mendeku gosearen arabera moldatutako espainiar justizia sistema ez da geratu. Ostiralean berriz espetxera bidali du Auzitegi Nazionalak. Espainiako "Jendearen Gobernuak" ere salbuespen auzitegiak eta legediak indarrean mantentzen dituelako, 7/2003 eta 7/2014 Lege Organikoak kasu.

 **ARISTRAINEN BIGARREN ESPETXERATZEAREN AURKAKO MANIFESTAZIOA DONOSTIAN / FOKU**

 **AXIER LOPEZ**



espen
riak

P



SARE



Statkraften parke eolikoa: aukerak, marra gorriak, haserreak

URKO APAOLAZA AVILA

Azpeitiko Soreasu antzokia erabat bete zen urriaren 11n, Sañoa mendian Statkraftek egin nahi duen parke eolikoaz informazioa emateko Azpeitiko Udalak antolatutako aurkezpenean. Ilarak sartzeko, aretoa lepo beteta, eta udal agintariak eta enpresako jendea parean; ia hiru orduko azalpenen eta galdera-erantzunen tarte luzeak... Ez da ohikoa azpiegitura handi batez modu horretan aritzea, eta Azpeitian, Zestoan eta Errezilen egin nahi duten proiektuak sorturiko jakin-min eta kezken erakusgarri ere bada Soreasu antzokian bizitakoa.

Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak argi utzi nahi izan zuen proiektua aztertzeko ez duela esan nahi "itsu-itsuan" sartuko direnik, eta azaldu zuen Statkraft enpresari marra gorri bat ezarri diotela hasieratik: "Energiaren sozializazioa". Josu Labaka Estrategia eta Hirigintza zinegotziak, berriz, autokontsumoaren inguruan Azpeitiko Udalak hartutako neurriez eta datuez hitz egin zuen: "Energia behar izaten jarraituko dugu eta berriztagarria izan behar luke", ondorioztatu zuen. Gainera, Labakaren iritziz, "oligopolista" den energiaren sektorea aldatzeko aukera bat izan daiteke Statkraften eredu.

Proiektuaren inguruko zehaztasun gehiago ere eman zituzten Azpeitian. Hala nola, kokapena "probisonala" dela, eta legez babesturiko natur-eremuetatik kanpo dagoen arren, "sakon" aztertuko dutela ondareari, ingurumenari edo paisaiari egingo liokeen kaltea. Alkortak hausnarketarako galdera bat luzatu zuen: "Energiaren demokratizaziorako bidea emango lukeen egitasmo baten balizko aukera baten aurrean, zer jarrera hartuko genuke?".

Lurrari eta elikadurari lotuta agertu zuten herritar batzuek kezka Azpeitiko batzarrean

Jon Zayas eta Luis Miguel Alvarez Statkrafteko ordezkariak proiektuaren inguruko informazio gehiago eman zuten: errotak Sañoa mendira eramateko bideen %91 jadanik eginda omen dagoela; Lasako azpiestaziora 3,8 kilometroko sarea jarri beharko litzatekeela; hegaztei eragindako kalteen inguruko urtebeteko azterketa egingo dutela... Zentral eolikoak Urola Erdiko energia kontsumoaren %50 aseko lukeela ziurtatu zuten enpresako orde-

kariak, eta proiektuak aurrera eginenez gero 2027 urte hasierarako martxan legokeela.

"ZENBAT MENDIKATE BEHARKO DITUGU?"

Galdera erantzunen txandan agertu ziren kezkek, kontraesanak eta haserreak. Herritar batek zalantzan jarri zuen eolikoak alternatiba ote diren: "Aramaio eta Azpeitiko proiektuekin Fagorren kontsumoaren %20 aseko lukeela entzun nuen lehengoan irratan. Fagorrek, orduan, 10 mendikate beharko lituzke? Benetan alternatiba bat baldin bada, zenbat mendikate aurreikusten dira sakrifikatu beharko ditugula?". Zentzu horretan, "herri bezala" beste antolaketak bat faltan sumatzen duela esan zuen herritarrek, eta "partxeak" jartzen ari direla. Alkateak arrazoi eman zion azkeneko puntuan, baina "dagoen errealitatearekin negoziatzea" dagokiela beraien.

Proiektuaren ingurumen-inpaktuez edo multinazionalak atzean dituen interesez ere jakin nahi izan zuten herritarrek: "Badirudi gu salbatzera etorri zaretela, baina nik ez dut hori uste. Eredua berdina da: kanpotik datorren enpresa bat ikusten duena hemen badagoela toki bat negoziatzea egiteko", esan zuen herritar batek. "Nondik sortu da proiektu hau?", galdetu zuen beste batek. Alkortaren erantzuna: "Gugandik sortu ez den ideia bat izate hutsagatik ez diogu aztertzeari uko egingo".

Lurrari eta elikadurari lotuta agertu zuten hainbatek kezka: "Kontsumitzen dugun elikagaien %10 bakarrik ari gara ekoizten Euskal Herrian. Ari gara hitz egiten sekulako krisi energetikoa dagoela, baina hemen elikagai krisi galanta ere badago", esan zuen errotak jarri asmo dituzten eremuan ganadurako lurak kudeatzen dituen baserritar batek: "Honek sekulako negar gurea ematen dit".

Alkortak eta Labakak batzarrean azaldu zuten hurrengo urratsak zein izango diren –eragileekin erronda, besteak beste–, eta amaieran berriz nabarmendu zuten aztertu beharreko "aukera" bat bezala ikusten dutela Statkraften proiektua. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Erakargarri



UXUE APAOLAZA LARREA

Amonatxo horren telesaila?”, “Ez, ez zen amonatxo bat, detektibea zen”, “Ados, amonatxo detektibea”. Ez zen amona, Jessica Fletcher hirurogei bat urteko emakume alarguna zen, telesailean barrena hainbat maitale sumatzen zaizkiona: ez zen ama, eta, beraz, amona ere ez. Elkarrizketa hori, edo antzekoak maiz izan nituen, berriro *Murder, she wrote* ikusten ari nintzela esaten nuenetan: hiruzpalau aldiz ikusi nuen telesaila osorik, ingelesa ikasteko nire materiala izango zela erabaki bainuen. Eta pertsonaia bat amatasunetik, eta zer esanik ez, amonatasunetik defendatu behar izateak, harekiko lotura estutzen du. Eta duela egun gutxi zendu da Angela Lansbury, nire pantaila hainbestetan bete duen aktorea.

Kuxkuxean hasi, eta ikusi ditut, nola ez, ditxosozko deklarazioak. Mee too-aren testuinguruan esan zuen emakumeena zela sexu jazarpenaren erruaren zati bat: erakargarriegi egon nahi izan dugu, desbideratu egin gara, eta leku txarrera eraman gaitu horrek. Duela gutxiko polemika bat etorri zait gogora, ez Madrilgo Elias Ahujako ikasle gizonen oihu matxisten ondorioz sortutakoa, irainak jaso zituzten ikasle emakumeek erasoia justifikatu izanak eragindakoa baizik.

Nola da posible biktinek biktima zigortzea, edo erasotzailea defendatzea? Eta erraz lerratzen gara hortik, geure buruei egiten diegun hurrengo erasora. “Emakumeak gara emakumeekin gogorrenak”, “emakumeak gara emakumeon etsai nagusiak”. Ez, emakumeoi kostatzen egiten zaigu biktima noiz garen jakitea ere. Ez da emakumeok haurrak izateko dugun mania Fletcher amonaxotzat (eta Columbo aitonatzat ez) hartzearen erruduna. Ezta hori hala dela dioen emakumea ere. Matxismoa da: erraza esaten, zaila hautematen. Madrilgo ikasleak garaiz daude oraindik susmatzen hasteko, Angela ez. Baina nik, gehiago ezin dudanean, jarraituko dut jartzen Bea Arthurrekin batera sari banaketa batean Bosom Buddies interpretatuz eman ziguten ikuskizuna etxetik dantzan ateratzeko. Bi emakume ezin erakargarriago. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

EITBK EZ DU
ADIERAZPEN ASKATASUNA
DEBEKATZEN...

...ASKATASUNAREN
ADIERAZPENA
BAIZIK!



Etxe kaleratzea

80 urteko Maria Angeles usurbildarraren semeak mailegua eskatu zion Reno Asument SL madrildarrari, abal gisa jada ordainduta zegoen amaren etxea erabiliz. Abusuzko klausula bat baliatuz, maileguemaileak auzitegietara jo du etxea enkantean jartzeko eta orain etxerik gabe geratu daiteke usurbildarra.

Amazon

Trapagarango Amazonen logistikazentroko langile guztiek bat egin dute LABek deituriko grebarekin. Lau orduko lanuztea egin dute. 109 langile dira guztira, eta banaketa lanez autonomoak diren edo azpikontratatura dauden 300 bat langile arduratzen dira.

Literatura

Euskadi Literatura Sarietan, Euskarazko Literatura saria jaso du Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasa* ipuin bildumak, Euskarazko Haur eta Gazte Literatura saria Leire Bilbaoren *Barruko hotsak* albumak, eta Literatur Lanaren ilustrazioaren saria Maite Mutuberriaren *Irrimola* lanak.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Mestizajeak



ULA IRURETAGOIENA

LURRALDEEN MESTIZAJEA

Bartzelonan “Biennial del Pensament 2022” egin dute eta nafar hiriburuan 1972-2022 Iruñeko Topaketen omenezko programa. Programazio kultural esanguratsua garai bertsuetan hemen eta han gertatzea ez ezik, EAEko agendan Iruñeko jardunaldien oihartzun isila ere albiste izan da. Lurraldean hormigoizko horma ikusezin batek eragiten duen blokeoaren aurrean, lurraldean mestizajea proposa dezagun. Iruñea Innsbruck, Hernani Sevilla Markina Gerendiain...

DIZIPLINEN MESTIZAJEA

1972an orduko abangoardia artistikoa bildu zen Iruñean, eta Prada Poole arkitekto esperimentalak plastikozko burbuila puzgarrien bidez osatu zuen Topaketen behin-behineko eraikina, Ibizan probaturiko egituren garapena. Topaketen 50. urteurrenean, Poolen lana azaltzen duen erakustaldi bat egin da Iruñean, arkitektura praktika artistikoen zakuan sartuz.

PENTSALDIEN MESTIZAJEA

2022ko Iruñeko Topaketetan entzundako pentsaldiak, praktika artistikoetatik sorturikoak, interesa piztu dezakete edonorengan. Lehena, ikerketa fokoei buruz. Interesa sortzen digun “horretan” zentratu beharrean, gatazka eragiten digunean lan egingo bagenu, errealtatearen konplexutasunetan murgilduko ginatke eta emaitza borobilen ordez, erantzun oparoak, itxierarik gabekoak eta segur aski kontraesankorrek izango genituzke. Kontraesana duintasunez besarkatzearen beharra gorai patuko genuke (Mireia Sallarésen hitzetan). Bigarrena, gorputzari buruz. Hain gaude ohituta errealtatea gizakiaren lekutik begiratzera, baina mikrobiologiatik gorputza bakteriar kolonia bat da, energia eta elikadura trukatzeko dutenak, eta ez dago argi non hasi eta bukatzen den, gorputz indibidual baten ideiarik ez dago (Maria Ptqk-k esana). Zibilizazioaren zutabe nagusiak desegiten hasi dezaketen begirada hauek datoz gizakiaren zibilizazio proiektuaren porrota gertu dagoenean, 2022an 1972ean baino gehiago. ●

ANALISIA



Macron, kexuak eta demokrazia

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Greba aitzina doa Total Energies-ek Frantzian dituen bost petrolio-findegietan. Autoari eta asfaltoari erabateko dependentzian antolatutako egunerokoan eraginak dauzka irailaren 21ean abiatutako grebak. Zortzi findegietatik zazpi ziren greban ostirala arte. Baina gobernua prefetari matuturiko errekesizio-prozedurak lanera bideratu zituen ExxonMobil-ekoak –hauturik ez du errekesizionaturiko langileak, errefusatu gero etxean du polizia, kartzelaldi eta 10.000 euroko isunarekin, gainera–. Greba beste sektoreetara hedatu dute urriaren 18an, azken aldiatiko jarraipen esanguratsuenetarikoa jasoz. Errekisizioen parean, ondokoa argitu nahi izan dute herritarrek: greba eskubidearen gainetik ez pasa.

Giroa berotuz doa, haserrea sutzen duelako testuinguruak. Ez dezagun ahantz oinarrian dagoen zifra: Total Energies-ek 5.700 milioi dolarreko etekina jaso du aurtengo bigarren hiruhilekoan. Prezioak gora doazela –tartean Total Energies eta ExxonMobil-en gasolinarena–, hertsituz doa oinarritzko beharrei erantzuteko bidea anitzentzat. Hori dauka oinarrian petrolio-findegietako grebalariekin borrokak. Aberastasunen banaketa justuagoa dute aldarri. Are justifikagarriagoa, dakigunean Macronen aldeko parlamentariak *super-profit* edo *super-etekindun multinazionalei* zerga gehiago bideratzearen kontra bozkatu berri dutela.

Negua hotza izanen da, eta iaz baino gehiago izanen dira etxea behar bezainbeste berotu ezinean. Klean, ordea, giroa berotuz doa, Frantzian bezala beste herri anitzetan –aberatsenak are aberatsago izate hori jasangaitza bihurtzen ari delako–. Macronek erantzunaren kolorea argitu digu. Hasteko, grebalariekin errekesizioa dauka *gatazka desblokeatzeko* tresna gisa. Horrez gain, Konstituzioko 49.3 artikulua erabiltzearena eta Legebiltzarra desegitearena ere ditu mahai gaineraturik. Erretreten erreforma izanen da negu honetako beste dossier bero bat, eta aurkakotasunaz kontziente, bi neurri horien mehatxua plazaraturik du. Horretan gara: beharrez Legebiltzarreko eztabaidak saihestuz pasako du erreforma; eta oposizioko diputatuek zentsura mozioa aurkeztuz gero Asanblea Nazionalea deseginen du. Badirudi testuinguru gatazkatsuetan demokrazia traban daukatela gure agintari demokratek. Zer pentsatua ematen du. ●

32

urte eta gero espetxetik atera da Ion Kepa Parot 71 urteko preso baionarra. Etxean segituko du zigorra betetzen, kontrolerako eskumuturreko elektronikoa jarrita. Urtebete barru, baldintzapeko askasuna lortuko luke Parotek.

%40ko

errekargua ordaindu beharko dio Fagor Ederlan Tafallak amiantoak kutsatuta hil zen langile baten alargunari. Epaitegiak frogatutzat eman du hildakoak amiantotik babesteko baliabiderik gabe egiten zuela lan.

2.500

zor "toxiko" saldu dizkio Kutxabankek Irlandako Zima Finances funts putreari, eta salerosketak EAEko hainbat familia kaltetu ditu; funts putreak etxegabetze prozesuak abiatu ditzake.

“Amarekin itxaronaldiek ordu bat irauten zuten Onkologikoan; gaur egun, lasai asko bost ordu”

OLATZ MERCADER

Donostiako Onkologikoko pazienteen eta erabiltzaileen batzordeko kidea da Mercader. Azken urteetan kalitatea galdu duela salatu eta onkologikoaren izaera monografikoa berreskuratzeko manifestazioa egin dute.

ARGIA.EUS (2022-10-14)



“BATZUK BETI DAUDE PREST EREDU POSITIBOAK SUSTATZEKO, GENERO-EKITATEAN, INGURUMENEAN, EKONOMIAN, JUSTIZIA SOZIALEAN... HORIEK AGERIKO EGIN NAHI DITUGU”

J. CARLOS VÁZQUEZ

Bilboko Film Sozialak Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren zuzendaria.

2022-10

“Nafarroako Euskararen Legeak ez ditu herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen, ez baitio euskarari ofizialtasunik aitortzen erkidego osoan”

ELENA ZABALETA

Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakariak hitza hartu zuen Tafallan ospaturiko Nafarroa Oinez jaietan.

2022-10-16



TEKNOLOGIA

Zer galtzen dut mugikorra galtzen badut?



DIANA FRANCO

Ditugun mugikorrak, inoiz ez bezala, gure inguru eta bizimoduen irudia sortzen dute. Informazio digitala eskuratzeko sarrera osagai (sentsoreak) elektronikoko ugari dituzte: Kamera, mikroa, ukipen-pantaila, azelerometroa, barometroa, girokopioa, GPSa, hatz markaren irakurgailua, podometroa, inguruko argi sentsorea...

Gure mundua jasotzeko gaitasun honekin, mugikorrekin gure bizimoduen argazki fidagarriak sortzen dituzte. Hori dela eta, mugikorra galtzearen ardura handia da pertsonengan, eta arrisku honen aurrean segurtasun informatikoaren beharra sortzen da. Kasu honetan, segurtasun informatikoa da zein estrategia sortzen ditugun informazio horrek guztiak hirugarren eskuetan buka ez dezan gailua galtzen badugu, eta guk geuk berreskuratzeko aukera izan dezagun.

Nik segurtasun kopiak egiten ditut. Baina segurtasun kopia horiek jasotzen dituen ordenagailua zuk zaindu eta mantendu behar duzu, zure gaitasun txikiarekin, eta gailuek zaharkitzea eta apurtzeke joera izanda. Hala, gordailu zerbitzua eskaintzen duten enpresa ugari sortu da munduan. Batzuk ordaindu egin behar dira eta segurtasuna eta pribatutasuna bermatzen dutela diote. Beste batzuk doakoak dira eta segurtasuna bermatzen dute gure pribatutasuna euren negozio ereduaren lehengai bihurtuz.

Irudikatu gazte atzerritar bat, ezer ez duena, leku berri batean bere izaera berreraikitzeke bidean. Eta irudikatu migrazioa arazo globala dela, herriek kudeatu nahi dutena eta horretarako informazioa behar dutela.

Aste honetan halako 35 gazterekin lanegi bat dut. Gazte hauen mundua euren mugikorretan dago, beno, ez bakarrik, darabilten mugikorretatik konektatzen diren hodeietan ere bai. Euren pribatutasuna oso ikusgarri duten gazteak dira, oso instituzionalizatuta dauden heinean. Euren mundu digitala segurua izatea, berreskuratu ahal izatea, izatearekin edo ez izatearekin guztiz lotua dago. Sarri zuri ala beltz jartzen naiz pribatutasun kontuekin, baina kasu honetan grisen artean mugitu beharko naizela uste dut. ●

NAZIOARTEA



SOREN ANDERSON/AFP

Gizakia: bizitza desagerrarazteko makina

AXIER LOPEZ

50 urte baino gutxiagoan, Lurraren historia luzean begi-kliskada batean, planetako animalia ornodunen kopurua –gizakiak izan ezik– %69 jaitsi da batez beste, WWF gobernuz kanpoko erakunde ezagunak argitaratu berri duen ikerketaren arabera. Hau da, arrain, ugaztun, narrasti, anfibio eta hegaztien bi heren gutxiago dago gaur egun. Era berean, kontuan hartu behar da 1970ean 3.692 milioi gizaki zeudela munduan, eta egun bikoitza baino gehiago garelara, laster 8.000 milioi pasa. Lehen begiratuan ekuazioak erraza dirudi: gero eta gizaki gehiago, orduan eta animalia gutxiago.

Txosten horretan, 1970etik 2018ra bitartean, 5.230 espezieren 31.821 populazioaren bilakaera aztertu dute. Bizitza azkar galtzen ari da Lurreko leku guztietan. Kontinenterik ez da hondamen horretatik liburu denik, baina badira bereziki kalteturik dauden gunek. Txostenak nabarmendu du Latinoamerikan eta Kariben gertatutakoa: aztertutako ornodunen populazioen murrizketa %94koa da. Halaber, adierazi dute ur gezako populazioek izan dutela jaitsiera orokor handiena mundu osoan (%83). Itsasoan kasuan azpimarratu dute planetako korallen erdia galdu egin dela, eta horrek eragin negatiboa izan duela bizitzan; izan ere, koralek itsas espezie guztien laurdena hartzen dute barnean. Aldi berean, marrazo eta manta-arrainen

31 espezieetatik 18ren ugaritasuna %71 murriztu da azken 50 urteetan. Datu berri hauek bat datoz 2019ko maiatzean Nazio Batuen Erakundeak berak ohartarazi zuenarekin: “Milioi bat espezie desagertzeko zorian daude gizakien jardunaren ondorioz”.

Txostenak dio arrazoi nagusiak ondokoak direla: habitataren degradazioa eta galera, espezieen gehiegizko ustiapena, espezie inbaditzaileak, kutsadura, klima-aldaketa eta gaixotasunak. WWF-k ohartarazi du “planeta-larrialdia” bizi dugula, eta egoera iraultzeko premiazkoak direla “gobernuen, enpresen eta gizabanakoen ekintza eraldatzaileak”; eta arduradun politikoei eskatu die ekonomia sistemak aldaraztea, “baliabide naturalak behar bezala balora daitezen”. Gobernuak ez diren baina botere guneekin oso lotuta dauden erakunde mota horiekin gertatu ohi denez –egin kontu, 2012ra arte elefantea eta hartz ehiztari Juan Carlos I zen Espainiako Estatuak WWF-ren ohorezko lehendakari sortzaile-, testuaren idazketan parte hartu duten 89 egileek ez dituzte sistema politiko eta ekonomikoa irauarazten duten gobernuak kritikatzeko, eta beste hitz mota batzuk erabili behar dituzte egiari iskin egiteko: kapitalismoak hil egiten du. Kapitalismo globalak sustatzen duen bizimodu indibidualista ezin da gure etorkizunaren parte izan, konbentzimendu politikoez gain, biziraupen hutsagatik. ●

“Landa eremua bizirik” nahi dute Baztanen

📷 JAGOBA MANTEROLA / FOKU

ELIZONDO / Erdiz Bizirik plataformak deituta, 2.000 bat lagun bildu dira Elizondon, Erdizeko larreetan Magna enpresak eraiki nahi duen harrobi proiektuaren aurka. “Landa eremua bizirik” lelopean, Nafarroako Gobernuari eskatu diote ez dezala baimendu mehatze proiektua, horrek Erdizeko larreak suntsituko dituelako, eta horiek direlako Baztanek bertako haziendetarako dituen bazkagune nagusietakoak. Manifestariek argi adierazi dute baztandarrek erabaki nahi dutela haien lurraldeetan zer egin eta nola bizi.



Diskriminazioa

Galtzak janzteagatik Basuriko sokatira txapelketatik kanpo utzi dutela salatu du emakume batek. Sokatirarako jantzi ofizialei buruzko arauak diote emakumeek gona jantzi behar dutela, eta gizonek prakak. Emakumeak hori amaitzeko eskaera egin zuten, baina aurten ez diote utzi galtzekin lehiatzen.

Elikadura

Gizarte Segurantzak elikadura iraunkor bat barnean hartzeko eskatzen hasi da hainbat lagun Frantziako Estatuan. Herritarrei modu jasangarrian elikatzeko aukera emateko proiektua dute helburu, pertsona bakoitzari hilean 150 euro emanez, tokiko kutxen bidez elikatzeko.

Energia

Autokontsumo energetikoa bultzatzeko legea tramitera onartu du Eusko Legebiltzarrak, EH Bilduk proposatuta. Autokontsumorako eguzki-plakak eta auto elektrikoak kargatzeko instalazioak lizentzia eskatu beharrik gabe jartzea ahalbidetuko du legeak, prozesua arinduz.

TORI BAT ETA EMAN BI: HORRELA ZUKUTU DUGU HEGOALDEA, NDF LAGUN

Munduaren Hegoaldeari 152 bilioi dolar ostu dizkio Iparraldeak azken sei hamarkadatan, truke-desberdintasunagatik: herrialde pobreetan prezioak eta soldatak baxuagoak direnez, desoreka dago merkataritza balantzan. Baina egoera hori nahita sortu dute Nazioarteko Diru Funtsa bezalakoek; historia ilun eta zeregin ilunagoa duen finantza erakundeak joko-arauak ezartzen baititu, Argentinan “soja dolarrarekin” oraintsu egin bezala.

URKO APAOLAZA AVILA

Mundu osoko 180 herrialdetako ekonomia ministroak bildu dituzte Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) eta Europako Bankuak, Washingtonen urriaren 15ean eta 16an egin duten urteko batzarrean –lehen aldiz hiru urte-tan modu presentzianalean–. Eta, besteak beste, NDFko zuzendari Kristalina Georgievaren azken ohartarazpena entzun dute: mundua atzeraldi batean erortzeko zorian da, horregatik, hazkunde aurreikuspenak jaitsi eta ekonomia “egonkortu” behar da, nahiz eta horrek “epe motzera sufrimendua” ekarri. Baina Georgievaren buruko minak beste batzuk dira. Dolarrak harturiko indarraren ondorioz, garapen bidean diren herrialdeetatik laurdenak ez ditu zeuzkan zorrak kitatu ahal izan, edo bonoak saltzeko zailtasunak dauzka, eta noski, horrek askoz gehiago arduratzen du munduko hartzekodun handiena den NDF, herritarren sufrimenduak baino.

Washingtonen adi entzuten ari zenetako bat Sergio Massa da, Argentinan abuztuan ekonomia ministro izendatu berria. Ondo ezagutzen du parean duen emakumea. Argentinan inflazioak goia jo eta bankuak erreserbarik gabe daude, eta Massak aste ugari darama NDFrekin negoziatzen *soja dolarra* aurrera ateratzeko. Herrialde horretan monolaborantza nagusi bilakatu den zereala esportatzerakoan, peso argentinarrak dolarraren aurrean jasaten duen gainbehera izugarria saihesteko sari moduko bat da, ekoizleak esportatzera animatu eta dolar eskasiarekin amaitzeko. Baina

NDFk hogeita hamaika eskutik du, bere historiako mailegu handiena eman baitzion Argentinari 2018an (57.000 milioi dolar) eta zorraren azken pagamendua egiteko (2.800 milioi dolar) programa ekonomiko gogor bat betearaziko dio orain.

Argentinako *soja dolarra*-ren kasua, nazioarteko merkataritzan Iparralde “aberatsaren” eta Hegoaldearen artean sortzen den moneta desorekaren erakusgarri garbia da: aspalditik *Unequal exchange* edo “truke-desberdintasuna” bezala ezagutzen dena. “Soldatak eta baliabide naturalen prezioa askoz baxuagoak dira Hegoalde Globalean Iparraldean baino, herrialde pobreek askoz lan gehigarri eta baliabide gehiago esportatu behar dute inportatzen dutena baino, merkataritza orekatua edukitzeko monetari dagokionez. Honek lan eta ekologia transferentzia etengabea sortzen du periferiatik erdigunera, azkenekoa garatu eta lehena pobretuz”. Hala azaldu du Dylan Sullivan Sydneyko Unibertsitateko Ekonomia Politikoko departamenduko ekonomialariak.

Sullivanek ikerlan bat argitaratu zuen iaz *New Political Economy* aldizkarian, hainbat kiderekin batera, munduko merkatal-espoliatioari zifrak jarritz. Ikerlanaren mamia departamenduen blogean laburbildu du, *The Global South has lost \$152 trillion through unequal exchange since 1960* (“Hegoalde Globalak 152 bilioi dolar galdu ditu 1960tik truke-desberdintasunaren ondorioz”) artikuluan, eta *Sin Permiso* aste-kari digitalak zabaldu du. Erosahalmena

parekatzen duen kanbio-tasa bat erabiliz, kalkulatu dute “garapen bidean” diren herrialdeek 2017an 2,2 bilioi dolar galdu zituztela, “ekonomia aurreratuen” eskuetara joan zirenak –AEBetako biztanle batek, batez beste 2.634 dolar irabazi zituen truke-desberdintasun horregatik, eta Australiako batek 3.116 dolar–. “Baliabide horiek pobrezia larriarekin amaitu zezaketen hamabost aldiz, baina horren ordez doan transferitu ziren zentrora”, dio.

Desoreka horrek Iparraldeko herrialdeei urtero emandako etekinak Barne Produktu Gordinaren %5,2 izan dira azken hamarkadetan –hazkunde tasa baino gehiago–. Sullivanek garbi du mendebaldarrron kontsumo maila ikaragarria “periferiaren” esplotazioan eta pobrezian dagoela oinarriturik. Kalkulu zabalago bat egitera ere iritsi dira ikerlanean: 1960tik –deskolonizazio prozesuek orduan hartu zuten indarra– ostutakoaren plusbalioa kontuan edukiz gero, galera 152 bilioi dolarrekoa litzateke Txina, Asia hego-ekialdea, Itsaso Barea, Ipar Afrika, Sahara hegoaldeko Afrika, Europako periferia, Hego eta Erdialdeko Amerika eta beste hainbat lurralderentzat.

NDF, MUNDUKO HIRU HIZKI GORROTATUENAK

Truke-desberdintasunaren teoria kritikatzen dutenek diote herrialde batzuen eta besteen arteko prezio diferentziak produktibitateari loturikoak direla. Alegia, Hegoaldeko langileak ez direla hain eraginkorrak lanean eta horregatik di-



KRISTALINA GEORGIEVA

NDFren buruaren ongi etorri argazkia, erakundeak berriki egindako urteko batzarrerako. Atzeraldi baten arriskua dagoela ohartarazi du, eta herrialde txiroek zorrarekin arazoak izan ditzaketela. Ez du esan, baina, NDFk jarritako joko-arau eta baldintza ekonomiko gogorren ondorioz dutela zor hori, merkatal truke-desberdintasunagatik 152 bilioi dolar lapurtu baitizkio munduaren Iparraldeak Hegoaldeari.


tuztela soldata baxuagoak. Arrazakeria hutsetik egindako baieztapen hori ezeztatzeko, adibide bat jartzen du ekonomialariak: Mexikon, metalgintzako, elektronikako eta jostintzako langileek ordubeteen %10 eta %40 artean produktu gehiago sortzen dute AEBetakoekin alderatuta; baina mexikar batek batez beste 1.619 dolar galtzen ditu urtean truke sistema injustu horrekin.

Orduan, ustezko era "naturalen" sorturiko zerbait ez bada, nola azaldu liteke Hegoaldearen desabantaila? Sullivanek "asalto inperialista" deitzen dion horri erreparatu dio: herrialde txiroen ekonomiak interbenitu eta lan merkatuak desarautzeko Munduko Bankuak eta NDFk hasitako estrategian. Erakunde horien siglak irakurtzean, jakin beharko genuke zertarako sortu ziren 1944ko Bretton Wood-

seko konferentziaren ondotik: "Batez ere, ziurtatzeko nazioarteko merkataritzaren eremuan AEBei komeni zitzaizaien multilateralismo mota, merkataritza libreari muga oro ezabatuz", idatzi zuen Josep Fontana historialariak *Por el bien del imperio* (Inperioaren onerako) liburu ezagunean.



NDFren jardunak zerikusi zuzena du kontinente askok historia hurbilean izandako pobretze orokorrarekin. Afrikaren 1980ko "hamarkada galduarekin", esaterako. Herrialde afrikarrei kanpo zorra hamar aldiz biderkatu zitzaizenean, NDFk baldintza gogorak exijitu zitzaizkien diruaren truke, tartean moneta devaluatzea eta gastu soziala murriztea -Fontanak adibide bat dakar bere liburuan: 1991n Mozambike derrigortu zuen gutxieneko soldatak hilean 40 eurotik 15era jaistera, pobreziaren langaren azpitik-.


Sortu zenetik, NDFk torlojuak estutu baino ez ditu egin: 1954an Perurekin sinaturiko lehen akordioa bi orrialde-tan kabitzen zen, 2010ean Greziarekin sinaturikoak 63 zituen, "gerra zirujia" diruditen baldintzez beteak, gogorarazi digu *Le Monde Diplomatique*-n Renaud Lambert kazetariak, *FMI, les trois lettres les plus détestées du monde* ("NDF, munduko hiru hizki gorrotatuenak") artikuluan. Erakundeak joko-arauak interes politikoen arabera aldatzen dituela dio Lambertek, eta munduko zor erraldoiri aurre egiteko bere maileguak jadanik nahikoak ez direnez, ongi egiten dakien gauza bakarra egingo duela: herrialde txiroei baldintzak gogortu zorra berregituratzearen ordainetan. Jakina da ondorioa zein izango den, bilioi dolarretan zenbatuko dugu berriz ere. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com



Castillo Suarez

HITZ GUTXIKO POETA



NAFARROAN BADA ERDARAZ BIZI, BAINA EUSKARAZ SORTZEN DUEN JENDE ASKO



“Bihotzean daramaguna gure hizkuntzaz baino ezin dugu adierazi”, dio Castillo. Poeta da, Sakanako euskara teknikaria ere bai, eta irailaren amaieratik Euskaltzain osoa. Bakardadeaz, abandonuaz, galdutako tokiez, baso nahastuez, herrigintzaz eta amodioaz hitz gutxiz eta ironia handiz hitz egiten digun idazle eta euskararen militante nekazina da.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Castillo Suarez, poeta ala idazlea?

Poeta naiz eta narratzaile kaxkarra edo narrazioetan, behintzat, ez naiz poesian bezain ondo moldatzen. Poesian nabarmentzen naiz, zerbaiten nabarmentzen banaiz.

Gazte hasi zinen, Iruñeko Udalaren egile berrien poesia lehiaketa bi urte jarraian irabaziz.

Nik uste dut Nafarroako idazleen harrobia hein handi batean lehiaketa horri esker sortu dela. Hortik etorri da idazle jende asko bai poesian, bai narrazioan ere: Anjel Erro, Joxemiel Bidador, Ain-

geru Epaltza, Alberto Ladrón, Gorka Urbizu, Jon Barberena, Bea Chivite, Hasier Larretxea, Juanjo Olasagarre, Nerea Balda, Saioa Alkaiza... idazle asko eta onak.

Poesia hurbila da zurea?

Bai. Nik uste dut nire nortasunarekin zerikusirik daukan estiloa dudala. Konturatzen ari naiz adinarekin gure aitarren gero eta antza handiagoa hartzen ari naizela, eta hura oso ironikoa da. Lasai baldin banago oso ironikoa naiz eta hitz gutxikoa. Ez dut nitaz idazten, baina nik idazten dut. Sintesirako joera handia daukat eta iruditzen zait hori

ere nire poesian islatzen dela. Hitz ongi hautatuak eta soberako hitzik ez.

Nik beti izan dut oso presente beste batentzat idazten dudala. Ez dut niretzako idazten eta ez dut asmo terapeutikorik edo halakorik. Irakurleari baliokodion zerbait egiten saiatzen naiz.

Eta zertarako balio dezake poesia?

Uste dut poesia hobea egiten nauela. Azken finean gauzei erreparatu egiten diezu beste begi batzuekin begiratuta. Idazten duenak badaki bere burua defendatzen. Ongi idazteak asko laguntzen dizu bizitzan, nire ustez.



Castillo Suarez Garcia

ALTSASU, 1976



Euskal Filologian lizentziaduna. 23 urterekin irabazi zuen lehen aldiz Iruñeko Udalak emandako Egile Berrientzako saria poesia modalitatean. Geroztik bederatzi olerki liburu argitaratu ditu, helduentzako bi album eta haurrentzako hamaika narrazio liburu. Lanbidez euskara teknikaria da Sakanako Mankomunitatean. Hainbat erakunde eta ekimenetan parte hartu izan du eta, gaur egun, jabetza intelektuaren kudeaketan diharduen EKKI Elkarteko lehendakaria da eta Galtzagorri elkarteko zuzendaritzan dago. Kolaboratzailea da ARGIA eta *Berria*-n. Euskaltzain urgazlea izan da 2016tik eta irailaren 30ean Euskaltzain oso hautatu zuten.

Poeta gazteek diote haien lanak ongi konektatzen duela gazteekin. Oso Instagram poesia dago modan gaur egun: ideia bat oso hitz gutxitan adierazita eta zartako moduko bat ematen dizuna.

Zure poesia ere halakoa zen hasieran. Instagram poesia egiten zenuen Instagram existitu baino lehen?

Bai hori da. Aizkorakadak banatu ditut han eta hemen. Nik uste dut lehorra, serioa eta hitz gutxikoa izatearen fama badudala. Egia da ingurukoekin distantzia eta espazioa mantentzea gustatzen zaidala. Agian zerikusirik izango du nire haurtzaroarekin. Urruneko toki batean, autobideaz beste aldean bizi ginen eta ni auzoko ume bakarra nintzen. Nire ahizparekin lau urteko aldea dut eta elkarrekin ez ginen jolasten. Beharbada horregatik naiz bakartia. Jendez inguratuta bizi naiz, baina gustura nago bakarrik ere.

Eta horren apologia egiten duzu...

Bai. Oso gaizki ikusia dago zinemara bakarrik joatea eta halako gauzak egitea, adibidez, eta ez nago ados. Gainera 30.000 kilometro baino gehiago egiten ditut urtean autoan, bakarrik, nire pentsamenduetan murgilduta. Lanarengatik eta militantziarengatik asko tokatzen zait bidaiatzea eta horregatik orain *deportibo* gorri bat erosi dut. Euskaltzaindian flipatzen dute.

Lan militantea non egiten duzu?

Nik uste dut euskalgintzako erakunde ia guztietan aritu naizela. Egon naiz Topagunean, Soziolinguistika Klusterran, Euskal Idazleen Elkartearen eta Berria-ko Administrazio Kontseiluan; eta orain, EKKI Euskal Kulturgileen Kidegoa elkarteko lehendakaria naiz eta Galtzagorri elkarteko zuzendaritzan nago. Honetaz gain, literaturak ematen dizkidan lanak egiten ditut. Epaimahai askotan egoten naiz, adibidez. Jendeak ez du nahi izaten eta nik ez dakidanez ezetz esaten, egiten dut. Orain hasi naiz ezetz esaten denborarik ez dudalako. Norbaitek egin behar du eta badakizu, gauza bat fundamen-

tu pixka batekin eta epe barruan egiten baduzu, hurrengo urtean ere deitzen zaituzte. Euskalgintzan ausarki egiten da lan eta, hala ere, begira nola gauden.

Zure lan poetikoa aldatu da urte hauetan? Orain doinu sakonagoa duela esan daiteke?

Baietz uste dut. Hasieran maiztasun handiarekin argitaratzen nuen eta beharbada oso gauza antzekoak plazaratzen nituen. Gero zeure buruari gehiago exijitzen diozu eta nahi duzu zerbait desberdina eta hobea egin. Euskaraz poesia liburu pila bat argitaratzen dira, baina oso poeta gutxi dago. Gauza bat da poesia liburu bat ateratzea eta beste bat poeta izatea.

Askok liburu bat plazaratzen dute, baina gero ez dute jarraitzen eta zailena idazten jarraitzea eta zerbait desberdina egitea da, hain zuzen ere. Alde horretatik, nik uste dut kritika on samarra dudala, baina saldu, aldiz, ez dut liburu askorik saltzen. Poesia ez da saltzen.

Oso Instagram poesia dago modan gaur egun: ideia bat oso hitz gutxitan eta zartako moduko bat ematen dizuna"

Nik poesiarekin dirua galdu egiten dut askotan. Bi apustu pertsonal handi izan ditut azken aldian eta horietan dirua jarri dut: *Elurra elurraren gainean* liburua eta Donostiako Victoria Eugeniaren irailen Poesia Orduak ekitaldian egin genuen *Alaska* emanaldia. *Alaska* liburu gisa ere aterako da heldu den urtean.

Hori ere auto-edizioan, *Elurra elurraren gainean-en bezala?*

Ez. Hori Elkarrek aterako du. Auto-edizioa da bizitzan behin egiteko bakarrik. Eta holako emanaldi bat ere bai. Juantxo Zeberio eta Xabi Lozanoekin egin nuen eta zoragarria izan zen, baina zaila berriz egiteko behar tekniko oso handiak dituelako. Baina ez ezinezkoa.

Zein da *Alaska*-ren istorioa?

Alaska hotel abandonatu bat da, ni jaino nintzen tokitik gertu dagoena. Maddi Barber zinemagilearen ideia da tokiei egiten zaien dolua. Berak buruan zituen urak estalitako herri eta bazterrak. Lan honetan hitz egiten dut galtzen duzunaz. Zurekin lotura zuten, baina dagoen-



neko existitzen ez diren lekuek zure baitan hartzen duten tokiez. Objektuek ere hitz egiten dut. Objektuek beste pertsona batzuekin lotzen gaituzte, eta harreman bat mozten denean gauza horiekin zer egiten dugun hartzen dut gogoan.

Elurra elurraren gainean enkarguz eginiko poemak bildu dituzu. Nolakoa da?

Oso lan berezia da, momentu berezi-tarako eta pertsona berezien inguruan sortutako testu bereziak biltzen dituelako. Fernando Reyk itzuli zituen horietako batzuk eta berea izan zen liburu batean biltzeko ideia. Txakur Gorriak taldekoek ilustrazio ederrak egin zituzten. Odisea izugarria izan zen, suplizio bat, abenduan papera garestien zegoenean eta garraio greba zegoenean atera nuelako. Ez dut gehiago auto-edizioa egingo, horretarako daude editoreak. Elkarrek egin du produktua, ez genuen ale gehiegi atera nahi eta, gure harridurarako, oso ongi saldu da.

Eta zure gaiak ere urte hauetan aldatu dira?

Azken aldian naturako elementu pila bat erabiltzen ari naiz poemetan. *Irautera* nire azken liburuan, nire jaioterriko paisaia sentimentalaz aritu nintzen eta Eus-



Azken hitza

ENBAXADARIK EZ DUGUN BITARTEAN

"Elurra elurraren gainean liburuko enkarguzko poemen artean dago Martin Ugalderekin omenez Urmuga ekitaldian irakurritakoa 2021eko uztailan. Amaierako bertsoak hala dio: "Egunkari batean iraun genezake enbaxadarik ez dugun bitartean", Euskaldunon Egunkaria-ren sortzaileei gorazarre eginez. "Buruan zeukaten poema horrekin txartel bat egin eta ekitaldian bertan banatzea, baina norbaitek erabaki zuen olerki hori 'politikoegia' zela banatua izateko, eta nik esaten dut: zer dago politikoagoa egunkari nazional bat egitea baino?"

kaltzaindiaren sarrera hitzaldia ere mai-tasunaren botanikaren inguruan egingo dudala uste dut.

Mendiz inguratutako eremu industria-la da Sakana eta, Gipuzkoa, zer esanik ez. Han basoak ez dira publikoak hein handi batean eta irabazi asmoarekin kudeatzen dira. Nafarroan, aldiz, denonak dira, zorionez. Ni hor bizi naiz, muga horretan.

Haurrentzako literatura zergatik idazten duzu?

Niri gustatzen zaizkidan ipuinak egiten ditut. Idazten ditut niretzat eta, egia esan, gauza batzuk ez dira argitaratzeko modukoak. Bestalde, badirudi haur literaturan beste parametro batzuetan funtzionatzen dutela eta liburu guztiek izan behar dutela helburu bat. Erre-mere hitz egiten badut edo mehea banaiz edo amarekin bakarrik bizi banaiz... Presio moduko bat dago liburu tematikoekin, autolaguntza moduko liburuak dira eta ez da beharrezkoa. Uste dut liburu bat bihotzera iritsi behar zaizula eta liburu on horietan gai guztiez hitz egiten dela: bakardadeaz, doluaz, gabeziez... Ez dut uste ume garaian heldutan baino zoriontsuagoa garenik. Berdin sufritzen da edo gehiago. Niri ez zait interesatzen haurtzaro erabat zoriontsuaren ideia faltsu hori.

Euskara teknikaria zara lanbidez.

Euskara teknikari bokazionala naiz, baina egia da ez nauela gehiegi nekatzen eta aukera eta malgutasuna ematen didala beste gauza batzuk egiteko. Bortzirietan hasi nintzen eta han ikasi nuen dakidan gehiena. Eredugarri ziren eta dira han dauden teknikariak. Gero Sakanara etorri nintzen eta hemen eman ditut azken 20 urteak, kenduta Burlatan eginiko tartetxoak. Nik beti esaten dut oso lan aspergarria dudala kudeatzailea naizelako hein handi batean eta horri esker sortzen dudala, energiak ez didalako lantokian ihes egiten.

Zer gustatuko litzazuke lortzea teknikari gisa?

Nik nahiko nuke haur eta gazteek euskarazko sormen lanak egin eta haiekin gozatzea. Sormenaren bidez jende guztiak, baina bereziki haur eta gazteek, hizkuntzarekiko atxikimendu bat lor dezaten. Baina hori oso zaila da, bai arrazoi objektiboengatik, bai bizitzan hizkuntza batera edo bestera eramaten zaituzten erabakiak gurutzatzen zaizkizulako. Nire kasuan, adibidez, gure etxean beti izan da euskararekiko eta kulturarekiko atxikimendu handia. Oinarri hori badut, baina horretaz gain, Altsasuko institutuaren Arbizuko eta Etxarriko gazteekin elkartu nintzen eta beraientzat naturalena euskaraz aritzea zen; ni ere giro euskaldun horretan sartu nintzen, bestela ziur naiz erdararako joera handiagoa izango nukeela.

Oro har, sentsazioa daukat gauza askotan ez dugula aurrera egin eta jarraitzen dugula legeria eskas baten menpe. Guk, adibidez, Sakanan ez dugu lortu D eredua orokortzea eta herri batzuetan erabilerak nabarmen egin du behera, esaterako Urdiainen, besteak beste bikote mistoen jokabidearengatik, esango nuke.

Kanpotik bizitzera etorritako pertonekin ere lan egiten duzue euskarara ekartzeko asmoz. Nola dago egoera Sakanan?

Kale neurketaren datuak aurkeztu zituzten duela gutxi. Gaztelera, euskara, frantsesa eta beste hizkuntza batzuen erabileran neurtzen da, eta emaitzetan ikusten da hiru herritan –Iruztzun, Uhartena eta Lakuntzan– beste hizkuntza horien porzentzajea oso handia dela.

Bestalde, argi dago maila sozialak badiuela zerikusi handia. Euskara ez da pobreen hizkuntza, ikasteagatik oraindik ordaindu behar delako. Euskara ikasteko denbora eta dirua behar dira, eta gainera sentitu behar duzu zerbaite-tarako balio dizula, eta ez naiz bakarrik lanaz ari. Gauza asko daude hor. Dirulaguntzak banatzeaz arduratzen naiz eta, tabernako soziologia eginez, esan dezaket askoz ere sentsibilitate handiagoa dagoela kanpotik etortzen direnen aldetik bertakoen aldetik baino. Euskara ikasteko eskaeren artean Danimarka, Uruguai, Katalunia, Brasil... hamaika tokitako herritarrak ikusten dituzu.

Aitonena da beste fenomeno aipagarri bat, hemen Sakanan oso garbi ikusten dena. Ez dut esaten aiton-amonena. Askotxo dira erretiroa hartu duten gizonek, iloba euskaldunak dituztenak, eta euskara ikastea erabaki dutenak. Beharbada emakumeek ordutegia oso bete dute, eta oso antolatua; eta gizonak, aldiz, agian denbora gehiago dute lana utzi ondoren euskara ikasteko.

Euskaltzaindiari zer ekarpen egiten ahal diozu?

Nire bizitza osoa eskaini diot euskarari, lanean, sormenean, militantzian... Izendapen hau hartzen dut aitortza baten

gisara. Literatura garaikidean zerbait egiteko asmoa dagoela ulertzen dut ere bai, eta horretan uste dut egin nezakeela nire ekarpena. Izaera nazionaleko bi elkartek daude literaturaren sustapenean lanean, Euskal Idazleen Elkarte eta Galtzagorri elkarte, eta haiekin zerbait egin daitekeela uste dut.

Nola dakusazu euskal literaturaren egoera?

Gurea hizkuntza minorizatua da eta kanpoan kutsu exotikoa hartzen diote, baina literaturari dagokionez, uste dut oso gauza homologagarriak egiten direla hemen. Nik, beti ere, euskal literaturaz hitz egingo nuke. Batzuetan deitzen naute Nafarroako literaturaz hitz egiteko, baina ez zait iruditzen halakorik existitzen denik, eta erdaraz ere ez dago ezaugarri propiorik duen nafar literaturarik.

Hemen mugimendua eta sortzaile euskaldun asko badira, ez?

Nafarroan bada erdaraz bizi, baina euskaraz sortzen duen jende asko. Eta esango nuke Iruñerrian gehiago. Bada kontzientzia bat eta euskaraz dakiten sortzaileek euskaraz sortzen dute. Horrek estatus bat ematen dio hizkuntzari. Sortzaile pila bat dago eta oso onak. Gero beste kontu bat da ea publikorik dagoen emanaldi guztietarako edota hainbeste liburu irakurtzeko... baina hori gertatzen da hizkuntza minorizatua bat garelako, hein handi batean.

Zer duzu orain esku artean?

Ramon Andresen poemak itzultzen ari naiz, *Alaska* liburua urte berrian plaza-ratuko dugu eta Euskaltzaindiaren sarre hitzaldia ari naiz prestatzen hemendik zortzi hilabetera irakurtzeko.

Beti lanean?

Beti lanean. Aurten oraindik ez dut oporrik hartu! ●

“
**Euskaraz
poesia liburu piloa
argitaratzen dira,
baina oso poeta
gutxi dago”**





Badatozkigu berriro zentral nuklearrak?

Duela 50 urte eztabaida beroa genuen geure artean argindarra sortzeko zentral nuklearrak behar genituela eta. Hala ere, euskal herritar gehienok garbi geneukan aurreikusita zeuden lau zentral nuklearrak ez zirela eraiki behar Hego Euskal Herrian. Proiektu erraldoi horiei aurre egiteko, euskal populua mobilizatu zen eta ETAK ere bat egin zuen xede horrekin. Aldiz, euskal eliteak nahi zituen zentral horiek eraiki, bestela “azak jatera eta kandelan argiekin bizitzera behartuak egongo baikinena”, itxuroso azaldu zigun bezala Xabier Arzalluzek. Geroztik jada bost hamarkada egitera goaz eta, zorionez, jeltxide buruaren aurreikuspena oraindik ez da bete.

Nuklearraren aldeko urte sutsu haiek lausotzen joan ziren, batik bat AEBetan Three Mile Island-eko istripua gertatu ostean 1979an; are gehiago, nuklearraren aldeko indarra ahulduko zen Txernobylo leherketa erradioaktiboen kariatara 1986an; eta azkenik, errematea, 2011ko Fukushima hondamendiak emango zion argindarra sortzeko metodo arriskugarri honi.

Geroztik, zentral nuklearrak ixteko urratsak ematen hasi ziren hainbat herrialdetan, hala nola Alemanian, Suedian, Espainian edo AEBetan (Kalifornian), baina ez Frantziako Estatuan, non berriki Macron lehendakariak aurreikusi baitu zentral nuklear berriak eraikitzea, nahiz arazo larriak dituzten

Orain arte ekologista gehienak zentral horien aurka zeuden, baina Alemanian bertan zatituta daude, baita Suedian zein AEBetan ere

herrialde horretako zentral gehienek: instalakuntzen herdoilketa, erreaktoreak hozteko ibaietako uraren beroketa jasangaitza, zeinak eragin negatiboa baitu ibaiaren fauna eta floraren gainean.

Gaur egun, energiaren krisialdian murgilduta gaude eta EBko herrialde orok, elektrizitate kontsumo maila euste aldera, zentral nuklearren gaia mahai gainera ekarri digute. Halaber, trantsizio energetikorako energia nuklearra garbia dela aitortu du Europako Batzordeak, Frantziako Estatuari amore emanaz; are gehiago, kontsumo premiak okertu egin dira Errusiak daraman gas politikaren ondorioz, elektrizitateko ekoizteko kostuak larriki hazi baitira.

Egoera honetan, zentral nuklearreko jarrera politikoak mugitzen ari dira, batik bat ekologisten artean. Izan ere, orain arte ekologista gehienak zentral



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

horien aurka zeuden, baina Alemanian bertan zatituta daude, baita Suedian zein AEBetan ere.

Hala ere, hondakin erreaktiboen auzia konpontzeke dago eta irtenbide egokia aurkitzea ez da erraza izango. Adibidez, AEBetan zentralen inguruan pilatzen dituzte eta Europan ere irtenbideak aurkitu nahian dabilta agintariak. Suitzan, Alemaniako muga ondoan, hondakin horien gordelekua eraikitzen ari dira 800 metroko lur azpiko buztinezko zulo batean, non hondakin erreaktiboak altzairuzko upeletan ipiniko diren. Finlandia ere lurpean sartzeko egitasmoak gauzatzen ari da. Horrela gordeta, 100.000 urtetan kontrolpean egongo omen dira hondakinak, izpi erreaktiboak isolaturik utzita lurpean.

Azkenik, eta hau ere ez da txantxetako arazoa, gaur egun zentral nuklearrak eraikitzen dituzten herrialdeen artean, batik bat, Errusia eta Txina daude. Adibidez, Errusia munduan zehar 30 zentral eraikitzen ari da eta egitasmoaren finantzaketa Errusiak berak ematen du, baita zentrala uranioz hornitu ere; halaber, mantentze lanak errusiarren esku gertzen dira, eta inbertitutako diru kopurua elektrizitatearen fakturen bidez itzuliko zaie zentralaren egile errusiarrei.

Haatik, zentral nuklearraren aldeko mugimendu elitista martxan jartzen ari da eta uholde hori gelditze aldera, jendarteak erantzun beharko du, bestela auzoan ipiniko dizkigute. ●

Zu ez zara berezia eta ez duzu apartekorik merezi



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

Todos merecemos lo mejor" ("Guztiok merezi dugu onena"). Halaxe dio pantailak. Irentsi bere horretan. Nork egingo lioke kontra halako baieztapen borobilari? Publizitatearen urrezko 20 segunduek ezein ikerketa soziologikok baino pista handiagoak eman ditzakete jendartearen norabideaz; ez da huseria, milioi asko daude jokoan.

Modernitateak Gizakia (gizon zuria) kreazioaren jabe bihurtu zuen. Badira hainbat urte, hala ere, toki hori Norbakoak hartu zuela. Bestetik, XX. mendeko erdialdetik aurrera eskubideen sasoia hasi bazen ere, ez ei zuen ibilbide luzerik egin; XXI. mendean, kolektibotasuna erauztearekin batera, eskubideen zentzua urtu baita.

Apetek eta desirak hartu dute euren tokia. Eta zer desiratu behar dugun ere ondo mugaturik dago: "Lo quieres, lo tienes" ("Nahi duzu, baduzu"), baldin eta erosteko dirua badaukazu. Kapitalismoaren logika merkantilak gure barrenak hartu ditu. Nahi dugun edozer geure eskubidea dela sakonki sinistuta gaude honezkerok, "¡porque yo lo valgo!" ("merezi dudalako!").

Pertsonak produktu ere bihurtu gaitu merkatuak, produktu eta bitarteko. Horrela, emakumeak esplotatzea eta izaki humanoak erostea eskubidea ei da askorentzat. Nork esango zukeen gutxieneko marra gorriak horren baxu egongo lirakeela Historiaren puntu honetan? Jakina, ez dezagun ahaztu erantzukizunik gabeko eskubideak direla kapitalismoarenak. Izan ere, erantzukizuna, oro har, besteekiko izaten da.



PAULA ESTÉVEZ

Bada bizitzaren sasoi bat, ama edota aita hiltzen ditugunekoa, identitate pertsonalaren xerka hasten garena. Muga-tutako sasoi izaten zen hori, nor garen behin argiturik, helduaroak ongi etorria ematen zigun eta. Baina kapitalismoak betiereko nerabazarora kateatu gaitu, gure sasi-individualitatea desirakin pizten, gure balizko "bereziatasun" hori erosten eta erakusten ditugun gauzeekin osatuko dugulakoan, harik eta gu ere gauzen segida huts bihurtu arte. Sekula erdietsiko ez dugun Paradisuaren promesa azkengabea.

Dena blaitzen duen erlijioa da. Atentzioa ematen dit, besteak beste, azken aldian zabaldu den bulling-aren kontrako

iragarkiak. "Berezia zara" da funtsezko mezua. Ez dut uste asmo makurrez egin denik; aitzitik, horren barruraino daukagu pentsamolde hori sartuta, ezen gure arazo guztien konponbidea individualitatearen sustapenetik etorriko dela sinisturik baikaude.

Noiz ahaztu zitzaigun enpatian eta elkartasunean heztea? Frustrazioak kudeatzen irakastea? Zaila da gaur egun gaizkia eta ongia bereiztea, ongia norberarentzat probetxugarria den horretara murriztu den heinean; zaila da frustrazioa borrokatzea, gure bizitzak zuzentzen dituzten desirak ez lirakeelako horren desiragarriak izango, eurekin batera, frustrazioa ere salduko ez baligute.

Gure balizko bereziatasunak ez gaitu ezeren merezitaile egiten. Areago, berez, ez gara bereziak. Denok daramatzagu barruan grina, pasio eta pultsio berberak. Geurekoiak eta kolaboratzaileak gara, aldi berean; poza zein mina eman eta poza zein mina hartzen dugu (hartuemanak horrexetan bide dautza). Hauta deza-kegun bakarra da norantz jo. Eta ez ahaztu hautu politikoa dela hori. Edozelan, mundua norberaren inguruan orbitatzen bada, ba al dago polis-arentzat tokirik?

Egon beharko da. Derrigor.

Hasi pisua kareletik behera botatzen; espermentatu gaurdanik mina eta porrota, nahi duzun guztia lortu ez izanagatiko amorrua. Ez da sasoi samurrik aurreikusten, eta ez dut uste egongo denik muxeru apatetsuen inozentekerietarako lekurik, ezta mainatsuen malkoak xukatzeko aldarterik ere. ●



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Emakume zapidunak

Eskertzekoa izan da zenbait euskal emakume kulturgileren bideo laburra, kurdueraz eta euskaraz, Emakumea, bizitza, askatasuna aldarrikatzen. Anarteraino, Mahsa Amini irandarraren heriotzak ez zuen ageriko samin handirik piztu gure artean, elkarretaratze xume bat kenduta, Iruñeko Udaletxe plazan. 80 bat lagun, errefuxiatu iraniar andana bat tarteko, feminismoaren gotorlekuetariko bat omen den hiri buruzagian.

Jakina denez, Mahsa Amini beloa “gaizki janzteagatik” atxilotu zuen, Teheranen, Moralaren Poliziak irailaren 13an. Zenbait ordu geroago ospitalera eramana zutela gaztigatu zioten bere familiari. Hilotz zen bi egun geroago. Irango segurtasun indarrek 150 lagun baino gehiago hil dituzte haren heriotzak ekarritako protesten errepresioan.

Tira, euskaldunok hagitz solidarioak gara, baina Persia zaharretik kanpora ere hamaika dira beren emakumeak (eta gizonak) azpiratzen dituzten herriak. Zer arraio, Saudi Arabian edo Golkoko gainerako monarkia petrolio-ekoizleetan kontuak hain desberdinak ez izan arren, mendebalaz ez die horregatik konturik eskatzen, iraultza islamikoaren aiatolei ez bezala.

Ezin uka, urrun dugu Iran. Ez hain urrun, ordea, burua estalirik eramaten dituzten emakumeak. Gure ondoan bizi dira, gehienetan gure auzo berberetan ez

bada ere. Karrikan barna paseatzen ikusten ditugu, saltokietako erakusleihoei begira. Edo haur parkeetan, beren umeen zaindari. Edo ikastetxe eta institutuetan sartzen edo ateratzen, liburuz zamaturik.

Hijabak eztabaida pizten segitzen du Europako aurrerazaleen artean. Hainbatek bere egin du musulmanen ohiko azalpena, eta nortasunari eta identitateari lotua ikusten dute haren erabilera. Halakoek mendebaldeko betiko pentsamolde supremazista eta neokolonialari egozten dizkiote hura gaitzesteko edo are debekatzeko saioak. Bertze zenbaiten begietara, berriz, gizarte islamikoetan emakumeari ezartzen zaion menderakuntza-aren ikurra baizik ez da hijaba. Ikusmolde horretakoa da, konparaziorako, Najat el Hachmi idazle eta militante katalana. Damurik, gure hizkuntzara ekarritako prosa feminista gero eta ugariagoak ez die oraindik tokirik egin jatorri marokoarreko sortzaile honen nobela eta saiakerei.

Gure eguneroko paisaia gero eta multietnikoagoaren atal bilakatu zaizkigu emazteki zapidunak. Ez edozein ordutan, ez edozein egoeratan, alabaina. Nik zapiarik ez dut ikusten, ortzirale eta larunbateko gauetan, gure karrikak mukurutzen dituzten ikasleen buruetan, ezta biharamunean ere mendian, lasterka egiten edo bizikletaz dabiltzan gazte taldeetan.

Beharbada kasualitatea da.

Beharbada inori ez zaio axola. ●



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Zaharrak

Umeak garenean handi izan nahi dugu. Nerabezaroan gazte. Gero, gaztaroa ahalik eta gehien luzatu, beti-gazte beterano bihurtu arte. Baina inork ez du zahar izan nahi.

Dena den, luze bizi nahi dugu, mende osoa ahal bada, baina zahartu barik. Ezinezkoa.

Zahartzaroa gorputz eta buruaren gainbehera da, baina inork ez digu irakatsi hori onartzen; are gehiago, zaharrak gutxietsita eta baztertuta dauzkagu.

Baina berandu hiltzeko, zahar izatera ailegatu behar, zainduta egon behar.

Zer egiten du, ordea, gizarte honek? Nahikoa baliabide jarri ez gure zaharrak

artatzeko. Familiaren gain lagatzen du zaintza, beti etxean norbait egongo delakoan, etxeko andrea, musu-truk bere kargura.

Bestela, ia esklabotzan, pertsona bat kontratatu 24 orduan bost egun eta erdian zain dezan. Normalean, emakumea eta migratzailea. Eta egoitza publikoetan? Lekurik ez, itxaron zerrenda luzeak. Beraz, beti zuzentzen gaituzte pribatuetara: 3.000-4.000 euro hilean! Patriarkatu kapitalista hutza.

Halere, milaka milioi gastatzen dihardute AHT eraikitzen. Gizarte ustela geurea zaharrak alboratu eta porlana hobesten duena. ●

Faxismoaren gorakada Italian eta handik haratago



ANDREA BARTOLO
AZET ETXEBIZITZA
SINDIKATUKO KIDEA

Duela aste batzuk Italiako hauteskundeak izan ziren. Emaitzetan, berriro, ez genuen sorpresan handirik jaso: eskuin-muturrak boterea eskuratu du, alderdi neofaxista baten gidaritzapean (Fratelli d'Italia). Datu politiko batzuk kontuan hartzea beharrezkoa zaigu, Italian gertatutakoak zuzenean interpelatzeko gaituelako. Izan ere, faxismoaren gorakada ez da Italiako salbuespena, Europar Batasunaren (EB) etorkizun hurbila baizik.

Lehenengo datu politikoa abstentzioaren gorakada da: %37 (azken hauteskundeetatik %10 areagotu da). Horrek biazuzi mahai-gaineratzen ditu: alde batetik, Europako beste hainbat hauteskundetan ikusi dugun moduan, demokrazia liberaren zilegitasunaren krisia azaleratzen da. Beste aldetik, sozialdemokraziaren diskurtso "antifaxistaren" mugak ikusarazten ditu ("bozka gaitzazue, faxismoa iritsi ez dadin"), urteetan hautesleak mobilizatzeko balio izan zuena, baina gaur egun agortuta dagoena. Europan urteak daramatzagu ikusten gobernu sozialdemokratek -faxismoaren mamuari esker boterera heldu direnek- faxistek egingo lituzketen politika berberak egiten dituztela: neoliberalismo basatia, pobreen kontrako gerra, NATOren inperialismoa babestea, etorkinen aurkako politikak...

Europar urteak daramatzagu ikusten gobernu sozialdemokratek -faxismoaren mamuari esker boterera heldu direnek- faxistek egingo lituzketen politika berberak egiten dituztela

Hau da, EBk agindutako oligarkiaren interesen aldeko politikak.

Honekin, bigarren gakora heltzen gara: "europismoaren" eta faxismoaren arteko dikotomia faltsua. Faxismoaren gorakada saihesteko, "EBren aldeko apustua" egin beharko genukeela sinestarazten digute, "europar balioak" babestuz. Hala ere, dikotomia faltsu horren atzean, errealitate ankerra dugu: egungo egiturazko krisian, Europan "balio" eta estrategiaren ordezkari onena faxismoa bera da; gero eta gertuago dugun autoritarismo garairako (austeritatea, inperialismoa, gerra...), Europak tresna eta forma autoritarioak behar baititu. Hots, faxismoa behar du.

Faxistek EBko estrategiarekin bat egiten dutela frogatzeko, eta Italiara bueltatuz, lehendakaria izango den Giorgia Melonik agindutako lehen neurriak aipa genitzake: Mario Draghirekin sinatutako politika ekonomikoari buruzko akordioa, Ukrainari armak bidaltzen jarraitzeko promesa eta Atlantikoko aliantzarekiko konpromiso irmoa. Hortaz, aurretik aipatutako dikotomia faltsuaren orde, europismo eta faxismoaren arteko harreman dialektikoa mahai-gaineratu behar dugu. Izan ere, faxismo "berria" Europako burgesiaren produktua da (2008ko krisiaren osteko eztanda sozialari erantzuten diona), eta orain bere zeregina gauzatzea dagokio: datorren krisia kudeatzea, burgesiaren klase-interesak babestuz.

Horren aurrean erantzun antifaxista irmo eta eraginkorra planteatzea ezinbestekoa zaigu. Hala ere, argi izan beharko genuke faxismoaren gorakada ez dela hauteskunderen zirkularren bidez geldituko, are gutxiago propaganda "europista" hutsarekin. Faxismoaren birusaren aurkako txerto bakarria langileon auto-antolakuntza da, borroka materialetan eta inperialismoaren kontrako borrokan gauzatuko dena, Kapitalaren Europan aurkako borroka ziklo berria berrosatuko duena. ●

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



ELIZONDO

Urriak 22, larunbata, 17:00
Baztan pilotalekua



Agin
Laburu
Rezola

Alaia
Martín
Etxeeste

Iñaki
Apalategi
Astigarraga

Joanes
Illarregi
Marzol

Onintza
Enbeita
Maguregi

Unai
Agirre
Goia

FINALAURREKOA



Kamiseta txuria
Lurra herriari deika
19,5 €



Kamiseta beltza
Lurra herriari deika
19,5 €



Kamiseta gris iluna
Inor ez da ilegala
17 €



Kamiseta gris argia
Inor ez da ilegala
17 €



Kaputxadun jertsea
Inor ez da ilegala
32 €



Sendabelar baratzea
Garbiñe Larrea
12 €



Gure heroiak
Axier Lopez
20 €



Jertsea
Inor ez da ilegala
28 €



Sendabelarrek dakitena
Garbiñe Larrea
25 €



Ilargia eta landareak
Urteko lanen agenda 2023
14 €



Argiaren egutegia
2023
10 €



Bizi Baratzea
Jakoba Errekondo
23 €

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Kohesio sozialerako aukera galdua

Asko hitz egiten da hezkuntzan dagoen ikasle segregazioaz, baina ikasgelatik atera eta zein doa igeriketa ikastarora, futbol taldera, dantza akademiara? Zein gelditzen da arratsaldero kalean, gaztelekuan edo etxean, baliabide ekonomiko eta logistikorik ez duelako? Nolako ondorioak ditu horrek haur eta gazteen garapenean, harremanetan, gizarte kohesioan? Ez al genuke bermatu behar aukera berdintasuna eskolaz kanpoko ekintzetan, aitortuta handia dela aisialdi antolatuak dituen balio hezitzaile eta sozialak?

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Heziketaren parte direlarik, eskolaz kanpoko jardueretako parte-hartzea demokratizatzea eta unibertsalizatzea da herrialde bezala dugun erronka". Gemma Ubasart irakasle katalanak berriki esana da. Gurean ere nabaria da haur eta gazteen aisialdian dagoen arrakala. Gaztelekuan duen esperientzia kontatu digu Amaia Bergara kale hezitzaile iruindarrak: asteburuan gazte profil anitzagoak elkartzen badira ere, astegun buruzurietan burbuila bat da gaztelekua, "beste zereginik eta nora joanik ez dutelako datozen gazteak dira, baliabide urrikoak, gainerakoak eskolaz kanpoko ekintzetan edo beren familiarekin dauden bitartean. Maiz hitz egin dut beraiekin

eskolaz kanpoko jardueraz, baina gehienek ez dute planteatu ere egiten, ez dute etxean halakorako aukerarik ikusten, beste unibertso bateko gauza iruditzen zaie pianora, solfeora, ingelesera, balletera... joatea. Gaztelekuan eskainitako tailer eta abarretara joaten dira, eta horietara ere oso ekonomikoak baldin badira, bestela ez".

Garbi du Bergarak: gazte horietako ugarik gustura hartuko luke parte jardueretan, benetako aukera izango balute. Udan, esaterako, gimnasio bonua izan zuten eta gazteek aprobetxatu zutela kontatu digu, baina bonua moztu zietenean goizetik gauera gimnasia joateari utzi zioten. Eta beste adibide bat, egoeraren tamaina hartzeko: gazte bat du gogoan, ordaindu behar ez zuen futbol taldean parte hartzen zuena, bai-

na entrenamenduetan baino ez, asteburuetako partiduetara ez zen joaten, ez zuelako dirurik ekipamendurako ezta modurik batetik bestera desplazatzeko ere. Azken finean, zailtasun ekonomikoek batu ohi zaie hainbatek ez duela erraza astean zehar hiritik mugitzea –ez haur edo gazteak berak, ez haren familiak umea batetik bestera eramatea–.

Gainera, jarduera bakarrean ez, astean eskolaz kanpoko bizpahiru eta baita hiruzpalau ekintzetan ere ematen du izena hainbatek, horrek guztiak duen kostu ekonomikoarekin. Eta ekintza, klub, elkarte... batetik besterako aldea ere esanguratsua da maiz –ikusirik hurrengo orriko infograma–, batzuk sudentzian daude eta beste batzuk ez, ekintza batzuk oinarritzko eta beste batzuk luxuzko artikulu bailiran.



PIXARAV

Lagunen eta inguruko enpresa eraginarekin eragindako faktore inportantea da, jarduerak aukeratzeko garaian. Hala dio Oihane San Vicentek. Euskal dantzak eta sormen dantza ematen dituz berak, azken horiek 30-35 euroan hilabeteko (ordubeteko saioa astean) eta jakin badaki ahalegin ekonomikoa eskatzen duela, hainbat familiarentzat muga izango dela seme-alabak klasetara animatzeko. Administrazioak esku hartzen duenean, bestelakoa da emaitza: “Udalak eskaintza eman dudana azken dantza tailerreko izen-ematea 3 euroan izan da”, azaldu digu San Vicentek.

BIGARREN FAMILIA

Heziketan zutabe inportantea dira eskolaz kanpoko jarduerak, hezkuntza formalaren osagarri eta aberasgarri. Hala berretsi digute erreportaje honetako solaskideek, eta ondorioz, au-

“Jarduera hauetatik kanpo geratzea ere bada sareak galtzea. Haurrak ez doaz bakarrik futbolera edo balletera, on asko egiten die eta halako baten parte sentitzea funtsezkoa da askorentzat”

Amaia Bergara

kera berdintasuna ez bermatzea eta jende bat sare hauetatik kanpo uztea diskriminatzailea da. Garapen pertsonalerako, autoestimurako, emozioak gestionatzeko, hezkidetzarako, harremanetarako, elkar zaintzarako, alde ludikoan sakontzeko, euskara espazio informaletan indartzeko... aukera paregabea izan daitezke. Norbere potentzialtasun, trebezia eta motibazioei bide ematen diete eskolaz kanpoko ekintzek, “eta kanpoan geratzeak esan nahi du agian zure gaitasun eta talentu bat mugatzen aritzea”, dio San Vicentek. Batzuetan, arlo akademikoari lotutako jarduerak dira, eskolan ematen diren gaietan aurreratu nahian gurasoen arteko lehia eta gurpil zoro bilakatzeraino, eta bazter geratzen direnentzako ondorioa ere garbia da: are atzerago geratzen dira ibilbide akademikoan.





Zenbat diru balio du aisialdi antolatuak?

Irun hartu dugu adibide, eta bertan dagoen eskaintzan sakondu dugu: haurrei zuzendutako eskaintza da, kontuan hartuz batetik udalaren inplikazioa duena, bestetik Irungo eskola publikoetako baten guraso elkarteak antolaturikoa, eta azkenik hiriko eskaintza pribatua. Ez dugu bildu Irungo eskaintza guztia, baina eskolaz kanpoko jarduerak suposatzen duten ahalegin ekonomikoa islatzeko balio du erradiografia honek.



Prezioa da hilabete bakoitzekoa

Inplikazio publiko munizipala

-  **Udal kontserbatorioa.** Lehengo ikasturtea musika ibilbidean > **106 €**
-  **Udal musika eskola.** Musika-tresna jotzea > **41 €**
-  **Udal kiroldegia.** Igeriketa hastapena. Ordu erdi astean > **19 €***
-  **FamiliOla.** Jolasak, tailerrak, irteerak... > **Doan**



Txingudi ikastola publikoko guraso elkartearen eskaintza

-  **Programazioa eta robotika.** 50 minutu astean > **30 €**
-  **Atletismoa.** Ordu eta erdi astean > **26 €**
-  **Antzerkia** > **25 €**
-  **Euskal dantza.** Ordubete astean > **21 €**
-  **Judoa.** 50 minutu astean > **20 €**
-  **Eskola kirola multikirola** > **15,7 €****
-  **Mahai-tenisa.** 50 minutu astean > **12 €**
-  **Txingurri Bihurri.** Jolasak, tailerrak, irteerak... Bi astero arratsalde bat > **2,5 €*****
-  **Kantu tailerra.** Ordubete astean > **Doan**

Eskaintza pribatua

-  **Ingelesa.** Kids and Us. 8 urteko umeentzat. Ordu eta erdi astean > **102 €** (+ 80 euro materialean)
-  **Skola Music.** Astean ordu erdi batera > **74 €**
-  **Tenis.** Txingudi kluba. Ordubete astean > **59 €**
-  **Eskulanak.** Marte akademia. Ordubete astean > **55 €**
-  **Kantua.** Pauso K. Ordubete astean > **36 €**
-  **Dantza modernoa.** Pauso K. Ordubete astean > **36 €**
-  **Dantza modernoa.** My Dance Studio. Ordubete astean > **27 €**
-  **Txingudiko Errugbi Taldea** > **22 €**
-  **Futbola.** Real Union kluba. Ordubete astean > **20 €**
-  **Piragua.** Santiagotarrak kluba. Ordubete astean > **20 €**

* Beste aukera: 18 € hilero ikastaroa eta kiroldegiko bazkidetzagatik.

** Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familientzat 4 euro. Udala da jarduera honen arduraduna.

*** Irteera batzuek prezio gehigarria dute.

OHARRA: Matrikula egin behar den jardueretan, matrikularen prezioa gehitu dugu, proportzionalki hilabetero.





INIGO AZKONA

ESKURAEZINA

Amaia Bergara kale-hezitzaileak gertutik ezagutzen dituen gazteek "ez dute planteatu ere egiten eskolaz kanpoko jardueretara joatea, ez dute halakorako aukerarik ikusten, beste unibertso bateko gauza iruditzen zaie pianora, solfeora, ingelesera, balletera... joatea".

Kanpoan geratzea ere bada sareak galtzea, "halako taldeetan parte hartzeak lagun talde berriak eraikitzea" dakarrelako, dio San Vicentek. Eskolaz kanpoko jarduera pribatuen pisua handia da gure gizartean, asko dira burbuila horretan mugitzen direnak eta beste asko hortik at daudenak, gizarte kohesiorako aukera bikaina izan zitezkeenak gizarte hausturarako tresna bilakatu. Kale hezitzailearen begiradak laguntzen du ulertzen jarduera hauen garrantzia: "Haurrak ez doaz bakarrik futboleko edo balletean aritzera, on asko egiten die horrelako zerbaitek, faktore ugari landu daitezke, eta halako talde baten parte sentitzea funtsezkoa da askorentzat; are gehiago, beraien bigarren familia bilakatu daiteke batzuetan, zentraltasun handia hartzen du beren bizitzetan, zer esanik ez nerabezaroan", dio Bergarak. "Bizitza ordenatu bat eraikitzeko ere oso inportanteak dira jarduera hauek. Kale hezitzaileok inbiltzen den gazteetako askok ez du zeregin finkorik, ohituta daude txikitatik 'bakarrik' egotera, eta ordena hori, egitura hori galtzen duzunean, zure burua gizarte saretik kanpo ikusten duzu, aparte; pertsona horrek zaila du bere lekua bilatzea, galduta bukatzen du sarri".

Ikastetxeetako guraso elkarteek bideratzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak behar bezala subentzionatuz gero, eskaintza merkea egitea legoke, denei irekita

DESOREKA NOLA OREKATU?

Hitez ematen diegun balioa praktikara eramanez nahi badugu, ez al lukete ume guztiek aukera eta eskubidea izan behar aisialdi antolatuan parte hartzeko, etxe bakoitzeko ekonomia kontuan hartuz? Ez al litzateke eskaintza publikoa handitu behar, ez al litzazkioke eskaintza pribatuari irizpide batzuk markatu behar, inor kanpoan ez uzteko? Izan ere, ukaezina da elkarte, klub eta akademia pribatuek nagusitasun handia dutela eskaintza orokorrean, eta haur eta gazteen

heziketaren parte diren heinean, pentsatzekoa da jarduera pribatua izan arren balio eta oinarri batzuen arabera aritzea eskatu beharko litzaiekeela. Baina tentuz erantzun digute solaskideek: ez da erraza eremu pribatuan egiten dena kontrolatzea, eta delikatu da horietan administrazioak eskua hartzea. Orduan, zer egin?

Elkarri lotuta dauden bi bideren alde egin dute galdekatek: diru publikoz lagundutako jarduera gehiago antolatzea haur eta gazteentzat, eta ikastetxeetako guraso elkarteek bideratzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak indartzea. Administrazioak merkatutik kanpo dauden jarduerak eskaintzeak gizarteko desorekak gainditzen lagundu dezakeela dio Lurdes Imaz Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko (EHIGE) koordinatzaileak: "Udal batzuek halakoak antolatzen dituzte puntualki, baina nabari dugu interes gutxi dagoela erakunde publikoen aldetik; maiz baliabideak eta ondo prestatutako profesionalak falta dira, arlo ez-formala gutxi baloratuta dagoelako maila akademikoan". Adibide positiboa jarri digute Hezten aisialdi elkartetik, eurek dinamizatzen dituzten FamiliaOla eta Parketarrak aisialdi ekimenak (jolasak, tailerrak, txangoak...) arrakastatsuak direla eta profil anitzeko jendea erakartzen dutela baitiote.

Ekimena eurek gestionatu baina udalek eskaintzen dute, eta udalek jarritako diruari esker doan hartzen dute parte haurrek.

Gako interesgarria jarri digute mahai gainean Bergarak eta San Vicentek: sarean lan egitearen onurak. Adibidez, herriko udala bertako kale-hezitzaile, gizarte zerbitzu, gazteleku, aisialdi elkarte eta eskolaz kanpoko jarduerekin egon daiteke harremanetan, haur eta gazteen beharrak nola ase hobeto bideratu aldera.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETARAKO BEKAK?

Diskriminazioaren aurrean, klub eta akademia pribatuetan baino errazagoa dirudi esku hartzea ikastetxean antolatzen diren eskolaz kanpoko jardueretan. Horregatik, alternatiba ona dela esan digute solaskideek: haurra ez da leku batetik bestera eraman behar eta instituzioek subentzionatuz gero, eskaintza merkea egitea legoke, denei irekita.

Gaur egun, baina, jarduera horietan ere bada segregaziorik. Aitor Idigoras bere seme-alaben ikastetxeko guraso elkartearen dago eta kezka agertu digu: “Ekitate eta berdintasun printzipioa mahai gainean presente izaten dugu ekintzak antolatzerakoan, baina ez du soluzio samurrik: badakigu familia askok ez duela ekintza hauetan izena ematen, baina guretzat oso zaila da zergatia jakitea, noiz den ekonomia zailtasunengatik eta noiz beste faktoreren batengatik, eta ez dugu asmatu modu bideragarririk informazio hori eskuratzeko. Jarduerari gehieneko prezio bat, muga bat, jartzen ere saiatzen gara, baina ekintza guztiekin ez da erraza, kostu bat dutelako”.

Jarduerak merke –edo doan– eskaintzeko, administrazioaren inplikazio handiagoa eskatu dute Aitor Idigoras

Sarean lan egitea onuragarria da. Adibidez, herriko udala bertako kale-hezitzaile, gizarte zerbitzu, gazteleku, aisialdi elkarte eta eskolaz kanpoko jarduerekin egon daiteke harremanetan, haur eta gazteen beharrak hobeto asetzeko

eta Lurdes Imazek. Azken honi galdetu diogu ba al dagoen bekarik edo dirulaguntzarik espreski eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, egoera zaurgarriagoan direnei zuzenduta, baina oro har ezetz erantzun digu. Guraso elkarteentzat bai, bada dirulaguntzarik, eta modua izan daiteke jarduerak subentzionatu eta kalitatezko eskaintza merkea bideratzeko, baina laguntza publiko hauek oso txikiak direla azpimarratu digu Imazek, “800-1.200 euro bi lerroko ikastetxe batean, Eusko Jaurlaritzatik”. Udalen artean zabalagoa da panorama: “Batzuek laguntza onak ematen dituzte, baina tramitazioa konplexua da eta laguntza hauek normalean ez dituzte kontuan hartzen behar bereziak dituzten ikasleak, zeintzuek laguntza pertsonalizatua behar duten

horrelako jardueretan parte hartu ahal izateko”.

Ikastetxe batetik bestera ere, handia izan daiteke aldea, eta eskolaz kanpoko jardueren eskaintza oso urria eta pobrea da hainbatetan, gurasoek adibidez antolakuntzan inplikatzeko nahikoa denbora eta baliabide ez badute –prekarietatean diren familia asko dituzten ikastetxeetan, esaterako–. Laguntza publikoak ikastetxe horiek lehenetsi beharko litzuzkeela aldarrikatu du Idigoras: “Udalak laguntza zuzena eman beharko lieke atzean geratzen diren eskolei, begiraleak ere jarritz, edo guraso elkarteak egiten ez badu, udalak antolatu ditzala jarduerak eskola horietan, gainerako ikastetxeen pare”.

KALEA ETA AKADEMIA

Beste muturrerako joera ere nabari da hainbatetan: batzuetan gauza gehiegitan ematen dute izena seme-alabek, ordu asko igarotzen dituzte ekintza bideratuetan, eta azkenerako umeak estresatzen bukatu dezakegu, edo haurrek amaitu dezakete aisialdi librean zer egin ez dakitela, jolasteko eta aspertzeko gaitasunik gabe. Oreak inportantea dela azpimarratzen dute adituek, egunero denbora libre zati bat gordetzea jolasteko, egunean egindakoa barneratzeko, sormenerako, etxean elkarrekin gauzak egiteko... “Jolas libreari ere garrantzia eman behar zaio, gaur egun dena oso bideratuta daukagulako, plazek eta parkeek garai bateko garrantzia berreskuratu beharko lukete”, dio Hezten elkarrekin Ainhoa Pinedok. Baina honetan ere, agerikoa da desoreka: jarduerak mugatuz aisialdia lasaiago hartzea hautatu dezakete batzuek, baina arratsaldeak kalean igarotzetik jarduera antolatuen sarean murgiltzeko bidea malkartsua da gizartearen zaurgarrien direnentzat. ●

Ekologikoak gara, naturala delako



Ekologia Nazionala eta Elkartasun Berria
Kontsumo Erabilgarria
Cambio de Actitudes y Alimentación Ecológica
elkartea



Europar Batasuna
Lehiakortasuneko Europako
Inbentarioa
Eusko Jaurlaritzaren
Eusko Jaurlaritzaren



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



“ ”

“*Bilbon suposatutzat ematen da gaztelaniaren ezagutza*”

Ainhitze Bizkarralegorra Bravo

Belgika, AEB, India eta Tailandian bizi izan da Ainhitze Bizkarralegorra (Bilbo, 1972), giza eskubideen inguruko nazioarteko sareetan eta Europako Batzordearentzat lan eginez. Herrialde, kultura eta testuinguru ugari ezagutu ostean, pandemia betean itzuli zen Euskal Herrira, alabarekin bertan geratzeko asmoz. Nazioarteko esperientzia horrek bertako errealitateari ikuspegi kritikoz begiratzeko aukera eman dio, are gehiago euskarazko hezkuntza sistemarena, alaba iritsi baitzen Bilbora euskara, ingelesa eta alemaniera jakitun, baina gaztelaniarik gabe. Horri buruz mintzatu gara berarekin.

 ASIER BASURTO  DANI BLANCO

Munduko leku ugarian bizi izan zara. Nolatan?

Beti izan dut oin bat Euskal Herrian eta bigarren oina da toki horietan izan dudana. Nazioarteko harremanak eta kulturak ezagutzea etxean beti oso presente izan dugu. Demokrazia eta giza eskubideen inguruko interesa ere beti sustatu izan digute. Europako federazio baten parte zen gobernu kanpoko erakunde bateko kide nintzen, eta gazte elkarten plataforma batean ordezkaria behar zuten. Hor hasi nintzen Europa mailako lanean boluntario moduan.

Erasmusen Belgikan bizitakoa nintzen eta euskaldun gisa Belgika oso interesgarria zitzaidan: federazio batean, kultur aniztasuna, politika aniztasuna... Unibertsitatea bukatu nuenean, Europar erakundeetan lan eskaintza bat atera zuten eta hortik pasa nintzen Europako Batzordera. Orduan hasi zen Europako Batzordea deszentralizazio prozesuan eta Indian zabalduko zen ordezkari postua eskaini zidaten. Indiari buruz ez nekien ezer; Ghandi soilik ezagutzen nuen. Oso pozik joan nintzen hara.

Gero berriz Bruselara itzuli nintzen; ondoren berriz ere Indiara eta geroago, Tailandiara. Duela bi urtetatik oin biak Euskal Herrian ditut eta horrela jarraitzea da asmoa oraingoz.

Zer eman dizu ibilbide horrek?

Ikusi dut kultura bezala desberdintasunak ditugula, baina komunean ditugunak ere asko direla. Osasuna, ingurugiroa, giza eskubideak... mundu osoan komunean ditugun gaiak dira. Eta bateragarriak dira horien alde lan egitea eta zure nortasun berezitua, zure marka, indartzea. Oso mundukoa eta oso bertakoa naizela ikusi dut. Euskal nortasunean berretsi nau eta indartu egin dit. Europar nortasuna ere bidean gehitu diot.

Uste dut beste herrietara lan egiteko moduen bila joan nintzela. Joan nintzen momentutik, irudikatu nuen edukiz eta jakintzaz jantziko nintzela atzerrian. Ikasiko nuela, garapen profesionala izango nuela eta, ondoren, itzuliko nintzela ezagutza horiek Euskal Herrian aplikatzera. Baina itzuli naizenean ohartu naiz agian ekarri dudana gauzarik baliotsuena esperientzia pertsonalaren mailakoa dela, jakintza maila baino gehiago. Izandako kultur arteko harremanak, esperientziak, bizimodu desberdinak probatu izana eta horrek guztiak ematen dizuna.



Munduan zehar egin duzun ibilbide horretan zehar familia osatu duzue. Familia eleaniztuna. Nola funtzionatu duzue hizkuntzei dagokienez?

Etxean hiru hizkuntza ditugu. Aitak alabarekin alemanez hitz egiten du; nik alabarekin euskaraz; eta gurasoek ingelesez egiten dugu. Funtzionamendua ez da zaila izan. Aitari proposatu nion alabari hizkuntza bakarrean egiteko eta nik ere hala egin dut beti. Alabari hitz bat falta zaionean, beste hizkuntza batean esaten digu, baina guk hizkuntza mantentzen dugu eta hitz hori gure hizkuntzan nola esaten den aipatuz erantzuten diogu. Adibidez: "Water nahi dut". Ura nahi duzula?

Kanal hori sendotu egiten da eta baikoitzarekin erabiltzeko hizkuntza finkatu. Gure otorduetan hiru hizkuntzak presente eta osagarri izaten dira mahaian.

Ohikoa da eleaniztasun hori zuen inguruan? Nola ikusten du jendeak?

Hona itzulitakoan ohartu naiz elebarkatasuna eta kultura bakartasuna zenbateraino dagoen barneratuta jendearen buruan. Aniztasun handiagoa ikusten eta entzuten bada ere, badirudi hizkuntza bat erabiltzen baduzu beste bat mespretxatzen duzula.

Portugaldar batek eta euskaldun batek Austrian sortu zituzten haurrak es-

kola alemanean sartu zituzten Bilbon. Ikusi dute hainbat gurasok eskola hori hautatu zutela beren seme-alabek ez zezaten euskara ikasi behar izan. Bera seme-alabekin euskaraz ari dela entzuten badute, guraso horiek gaizki begiratzen dute; baina ingelesez edo alemanez egiten badute ez dago arazorik.

Erronka handia dugu ez mugatzen hizkuntza bakarrean bizitzera eta ez frustratzen hor. Badakit gaur-gaurkoz ezinezkoa dela euskara hutsean bizitzea, baina euskaraz ere bizi nahi dut.

Belgika eta India eleanitzak dira. Belgikan lau lurralde-eremuen arabera da banaketa. Baina Indian egunero jendeak bi edo hiru hizkuntza erabiltzen ditu. Edozein klastetako jendeak, baita eskolatu gabeek ere. Lanean, etxean eta edonon ikasten dute. Hemen esaten da hizkuntzak ikastea zaila dela, baina edozer da zaila ez badiozu zentzua edo erabilgarritasuna ematen. Guretzat, gure etxean, erraza, eroso, naturala eta polita izan da.

2020an bederatzi urterekin heldu zen zuen alaba Bilbora bizitzera, euskararekin, alemanarekin eta ingelesarekin.

Lehenago ere uda batzuetan egon izan ginen hemen. Orain, pandemia garaian etorri gara. Eskola publiko batean tokia eman ziguten Hezkuntza Saitetik. Eskolak eta tutoreak oso harrera ona egin ziguten, instalakuntzak eta materialak erakutsi zizkioten alabari, baina heldu ostean aste batzuez ez zen klaserik izan itxialdiagatik. Bitartean Bangkok-eko eskolan matrikulatuta mantendu genuen alaba, hiru hilabetetan zehar. Ikasturte horren amaieran hemengo ikaskideek alabari ongi etorria emateko grabatu zuten bideo bat bidali zion tutoreak. Euskarazko abesti batekin, baina ikaskideen erdiak gaztelaniaz hitz egiten zion. Gurasoei eskatu zieten mezu laburrak grabatzeko eta askok gaztelaniaz egin zuten.

Hurrengo irailean, ikasturtea hasi zenean, alaba harrিতuta bueltatzen zen etxera ikaskideek euskaraz egiteko zuten zailtasunagatik. Euskarazko eskola batera joan nahi zuela esaten zidan. Baina D ereduan zegoen! Beranduago jakin nuen haurrak ia bi hilabete pasa zituela oso gutxi hitz egiten. Gabonetarako gaztelaniaz komunikatzeko gai zen. Ikaskide eta irakasle batzuek batzuetan ez diote sinesten gaztelaniazko hitz bat falta zaionean. Ongi moldatzen



da, baina hiztegia falta zaio, sinonimoak... Suposatuztat ematen da gaztelaniaren ezagutza.

Badaude ikaskide batzuk, bereziki euskaraz egiteko ahalegina egiten dutenak. Jatorri atzerritarreko gurasoak dituzte edo jatorritik eleanitzak diren familiak.

Eta nola daramatza hizkuntzekin lotutako bizipen horiek alabak?

Eskolak esaten zidan alaba animatzeko euskarari eustera eta euskaraz aritzera. Baina nire alaba ez da heroi bat. Eskolan besteak bezalakoa izan nahi du eta ez dago karga hori jasateko prest. Ikusten du ingurukoek gaztelania erabiltzen dutela eta gaztelaniaz behar bezala ez moldatzeak arraro egiten duela. Duela hilabete batzuk *Kantu bat gara* kontzertutik atera eta segituan esan zidan "euskaraz egiteko lotsa kendu dit; baina kalean, ez eskolan".

Lehen ikasturtea harridura horrek markatu zuen: inguruko zailtasuna eta euskarazko eskola-giroaren gabezia. Niri argi geratu zitzaidan ere euskalduna eta atzerritarra den ume baten guraso naizela.

Euskaraz alfabetatzeko errefortzua behar izan du eta ikasle heldu-berri bezala Hizkuntza Indartzeko HIPI programan egon da. Besteak beste bere ibilbidea kontatzeko, zein lurraldeetan eta nola bizi izan den kontatzeko aurkezpen bat egin zien ikaskideei. Eta sekulako ilusioz egin zuen. Besteek ere hobeto ulertzen dute bere egoera or-

“ ”

Mendebaldeak asko dauka reseteatzeko, bizimodua aldatu behar dugu

"Pandemiaren hasierak Tailandian harrapatu ninduen eta hona etortzean, jendea maskara jarrita ikustean, Asian nengoela iruditzen zitzaidan. Pandemia aurretik Mendebaldeko Europan bizi ginen bezala bizitzea ez zen batere jasagarria. Gutxiengo bat bizi da horrela munduan. Indian bizi izan naizen urteetan, ez ditut bi egun berdinak izan. Ez dut inoiz jakin ea ura edukiko genuen, argindarra moztuko zuten edo trafikokoan aldaketak izango ziren. Hemen dena programatuta eta robotizatuta zegoen. Badakit jende askorentzat oso kaltegarria izan dela, baina gizarte mailan eta norbanako mailan reseteatzeko aukera izan da. Mendebaldeak asko dauka reseteatzeko, bizimodua aldatu behar dugu".

ditik. Eta irakasleari proposatu genion ikaskide guztiek egin zezatela antzeko aurkezpen bat.

Eta eskolatik kanpoko jarduerari dagokienez, zein aukera izan duzue?

Bilboko Musika Eskolan hainbat programatan ikasten ari da. Irakasle euskaldun-berriarekin euskarazko harremanak ditu alabak eta eskolako hainbat harridura geratu dira, ez baitzekiten irakasle hori euskaraz aritzeko gai zenik. Banakako harremana euskaraz dute eta orkestran, berriz, elebitan aritzen dira.

Katekesira joatea nahi nuen eta ikerketa txiki bat egin nuen horretarako. Bilboko elizetan tour bat egin eta gero, Gotzaindegitik bizpahiru elizatarara bideratu gintuzten. Azkenean jakin dugu Bilbon parrokia bakarrean eskaintzen dela katekesia euskaraz. Eta lortu dugu nire alabak euskaraz egitea, baina informazio hori ez dago eskuragarri modu errazean.

Antzerki eta igeriketa ikastaroak ere euskaraz egin ditu. Dantza ere probatu zuen, gaztelaniaz zen, baina epe laburrean utzi zuen. Euskal pilota ere euskaraz egiten du. Azken finean gaur egun eskolaz kanpoko jarduera guztiak euskaraz ditu.

Denak izan dira harreman eta esperientzia aberasgarriak. Hala ere, ikusten da ohitura eta protokolo batzuk falta direla. Behin baino gehiagotan, ikastaro hasieran gurasoekin bilera gaztelaniaz egin eta gero galdetu dut ea ikastaroak zein hizkuntzatan izango diren eta ohar-



tu gara haur guztiak euskaldunak direla eta ikastaroak euskara hutsean egin zitezkeela. Baina guraso batek bultzatu du hori agerraraztea; Udalak eduki behar luke protokolo bat.

Munduko hainbat eskolatan izandako esperientziak, hezkuntza-eredu desberdinak ezagutzeko aukera eman dizue. Ikasgelako dinamikari dagokionez, gurasoekiko harremanari dagokionez, nola funtzionatzen dute?

Metodologiari dagokionez nabaritu dugu gauza ez dela aldatu tamalez: buruz ikasteko beharra, azterketa asko, lankidetzarako bultzadarik ez...

Indian alemaniar eskolan aritu zen. Hizkuntza aldetik, bi irakasleekin funtzionatzen zuten. Batek beti ingelesez egiten zuen eta besteak beti alemanieraz. Eta asteko egunak banatuta zeuden: batzuetan alemaniera zen irakaste hizkuntza eta besteetan ingelesa. Horrek funtzionatu dezake. Kultur arteko tasuna ez zuten bereziki lantzen. Baina irakasleen erdia indiarra zen eta beste

erdia alemaniarra; ikasle gehienak europarrak ziren.

Tailandian australiar eskola batean egon zen. Ikasleen erdia tailandiarra zen eta beste erdia munduko beste lurraldeetako. Hori bai zela nazioarteko eta kultur arteko eskola! Nahiko ohikoa den *Nazioarteko edo Kulturarteko astea* egiten zuten. Baina, esate baterako, ingurugiroa lantzen zutenean mundu osoko arazoak lantzen zituzten, herrialde ezberdinen ikuspegitik. Klase barruko aniztasuna oso ongi baliatzen zuten: bakoitzaren jatorria, ezagutzak, kulturak... Gainera proiektuak lan egiten zuten, talde-lan asko, eztabaida eta solasaldi asko...

Erabat harrituta dago alaba hemen, adibidez, ikasleek klase aurrean hitz egiteko duten aukera gutxiarekin. Irakurri ere beste eskolatan baino askoz gutxiago irakurtzen dute hemen. Eta hori euskarazko gaitasun egokia lantzeko ere funtsezkoa iruditzen zait. Gurasoekiko harremanari dagokionez ere, oso desberdina da. Ez dago familiak inplikatzeko kulturarik. Familiak eta eskolak elkarlanean asko egin dezakete.

Horrez gain, uniformearen kontua ere aipatu nahi nuke. Gure alabak australiar eskolan uniformea eraman behar izan arte, aitortu behar dut aurreiritzia neukala uniformearen kontuarekin. Aldiz, lau urtez uniformearekin bizi izan ondoren, aitortu behar dut uniformearen aldekoa naizela. Elementu berdintzailea izateaz gain, familiei denbora eta dirua aurrezteko laguntzen duena ere bada. Hori bai, hangoak uniforme erosoak –adinari egokitutakoak, adibidez praka-gona gonaren ordeaz– dira, ez Bilboko kaleetan ikusten diren asko modukoak. Alabak galdetu izan dit hemengo batzuekin nola den posible jolastea. Bai Indian, baita Australian ere, eskola publiko zein pribatuek, uniformea darabilte. Umeek ez dute denborarik debalde botatzen arropen marka aukeratzen edo arropa aldatzeko maiztasunean. Bateragarriak dira eskolan uniformea eramatea, ume bakoitzak bere nortasuna garatzearekin.

Azkenik, alabarentzat deigarria den beste zerbait: hemengo eskolan futbol porteria asko dagoela, bestelako kirola edo jolas-parke espazio gutxiarekin. ●

BABESLEA:

HIZKUNTZA
berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry

Emakume ijitoen aurkako indarkeriak hamaika ardatz

Emakume ijitoek pairatzen duten arrazakeria edo diskriminazio espezifikuari egiten dio erreferentzia *genero antitziganismo* kontzeptuak. Halere, gizarteak oro har ezagutzen ez duen eta emakume ijitoak oraindik eraikitzen ari diren kontzeptua da, AMUGE eta Romi Berriak elkarrean arabera. Aurrerapausoak eman asmoz, Genero Antitziganismoari buruzko I. Nazioarteko Kongresua burutu dute urriaren 3a eta 5a bitartean Bilbon. Emakume ijitoek pairatzen duten indarkeria sistematikoa izan dute aztergai, perspektiba anitzetatik.

 JONE GARTZIA

Aretoa entzulez eta hizlariz beteta. Emakume ijitoak nagusi, baina ijito ez garenontzako eta gizonentzako lekua ere baze goen. Izan ere, urriaren 5a Genero Antitziganismoari buruzko I. Nazioarteko Kongresuaren hirugarren eta azken eguna zen eta, aurreko biak ez bezala, publiko osoari irekitako jardunaldia izan zen. Lehenengoan pertsona ijitoek baino ez zuten parte hartu eta bigarrenean soilik emakume ijitoek. Azken egunean, aldiz, aretotik kanpo ere izango zen nor edo nor saioari so, *streaming* bidez eman baitzuten ekitaldi osoa.

AMUGE Euskadiko emakume ijitoen erakundeak eta Romi Berriak berdintasunaren aldeko gazte ijitoen elkarrean antolatutako zituzten jardunaldiak. Hiru egun mamitsuetan nazioarteko jende andana elkartu zuten hizlarien eta parte-hartzaileen artean: Errumaniatik, Alemaniatik, Portugaletik, Latinoamerikatik, Albaniatik, Herrialde Katalanetatik, Madrildik, Aragoitik eta Andaluziatik gerturatu ziren, besteak beste, genero antitziganismoari adar anitzetatik heltzeko. Giza eskubideen urraketak, politika publikoak, interseksionalitatea, aniztasun funtzionala, etnosexismoa eta memoria historikoa izan ziren landutako gai batzuk, erromani ikastaro bat eta gaitu.

Genero antitziganismoa emakume ijitoek pairatzen duten matxismo espezifikoa dela azaldu zuen Noemi Amaya AMUGEko kideak. “Nahita egindako baldintzapena da”, zehaztu zuten Andrea Zufiaurrek eta Alejandra Morenok. “Gizatasuna kentze horrek amorruta, ezintasuna, sufrimendua, tristura, mina eta haserre handia eragiten ditu”. Jardunaldiotan bizipen propioetatik indarkeria hori zehazten ahalegindu ziren, definizio itxirik lortu ez bazuten ere. Sandra Herediak esan bezala, milaka urtetan *romafobia* [antitziganismoa izendatzeko terminoa hau ere] gogorra pairatu dute eta “ezinezkoa da goiz erdian definitzea”. Eztabaida, gainera, kontzeptuan ere badago: *genero antitziganismo* ala *antitziganismo interseksionala* deitu. Definizio horren bilaketan bi alderdi planteatu zituzten: alde batetik, emakume ijitoen artean gogoeta egiteko eta pentsamendua eraikitzeke lana eta, bestetik, lana eta elkarrizketa gainerako gizarte euskaldunarekin.

Horretarako baliatu zuten azken saioa. Aurreko bi egunetako ondorioak aurkezteko plaza izan zen, baina sormenak ere izan zuen lekua. Bi orduko saio indartsuaren ondotik etorri ziren Silvia Agüeroren *Gaztelu bat bezalako ijitoa* bakarrik eta Gure Golé emakume ijito feministen koroa. Hiru eguneko

nazioarteko jardunaldi aitzindariak antolatutako izanagatik ere, nekea ez zen inon ageri. Bai ordea indarra, kemenak, zirrara eta, nola ez, amorruta eta aldarrikapena.

ONDORIOAK PLAZARA

Esan bezala, jardunaldien bigarren egunean emakume ijitoek izan zuten protagonismoa. Taldeka banatu ziren indarkeria transistemikoei, enpleguari, gizarte eskubideei, hezkuntzari, osasunari eta gorroto diskurtsoei buruz gogoetatzeko. Plazaratu zituzten ondorioen artean bat nabarmen izan zuten, “hausnartzen jarraitzeko” espazioen beharra dago. “Aspaldi genuen honen inguruan eztabaidatzeko beharra”, adierazi zuten espazio ez-mistoak aldarrikatzearekin batera. Tamara Clavería Amugeko koordinatzaileak askatasunez adierazteko eta pentsamendu propioa garatzeko konfiantzazko guneak ezinbestekoak direla aipatu zuen, eta horiek exijitzen jarraituko dutela. “Asko dugu esateko”, azpimarratu zuten María Hernándezek bere hitzartzean, eta María Filigrana Fakali elkarreko kideak gogorarazi zuten: “Ez da orain feminismoak atentzioa eman digula eta honi buruz hausnartzen hasi garela, feminismoak mendeetan zeharkatu gaitu eta beti izan gara feministak, mugimendua bera jaio aurretik ere”.



AMUJES ROMI BERRIAK

Etengabe eztabaidatzeko prestutasuna izan arren, argi azaldu zuten genero antitiziganismoaren karga ez dela soilik eurena. Herri ijito osoaren babes eta ijito ez direnek osatutako mugimendu sozialen aliantzak aldarrikatu zituzten behin baino gehiagotan. Hernándezek, esaterako, harrituta azaldu zuen kaleko merkaturen baimenen % 80 emakumeen izenean egon arren, beste sektore feminizatuek jasotzen duten haina babes ez dutela sumatzen esparru horretan lan egiten dutenek.

Pixkanaka, hitza hartu zuten emakume guztien artean, hainbat esparrutan ijito izateagatik pairatzen dituzten diskriminazioak aletu zituzten, jazarpena sistematikoa dela nabarmenduz eta antitiziganismoa giza eskubideen urraketa dela gogoraraziz. Indarkeria transistematikoa dela nabarmendu zuten, eta klaseak, erlijioak, orientazio sexualak, migrazioak, lurraldetasunak, aniztasun funtzionala izateak... eragina duela diskriminazioak gurutzatzerako orduan.

Mendeetan zehar bizi izandako jazarpen kulturala ere nabarmendu zuten: hizkuntza-zapalkuntzarekin, janzkeraren bitartez edo hezkuntzaren bitartez, adibidez. Horri gehitu behar zaizkio industria kultural eta musikalaren apropiazio kulturala eta horren bitartez zabalduko klixekak.

Infantilizazioa eta gutxiespena, ordea, edonon nabaritzen dituzte: hezkuntzan, osasun-sisteman, enplegarritasun planetan... Azken hori Hernándezek adierazi zuen: "Enplegarritasunaren fokua gure gainean jarri dute: lan elkarriketa batean nola jantzi eta nola hitz egin erakusten digute, baina errealitatea bestelakoa da, enpresek ez gaituzte kontratatzen arrazistak direlako".

Egozten zaizkien estereotipoak buruz ere aritu ziren: "Gureganako espektatiba falta, lapurtzat hartzea, gure seme-alabak zaintzen ez ditugun ideia...". Aurreiritziek, gainera, badute genero izaera: emakumeak otzan eta engainatzailetzat hartzen dituzten bitartean, gizonak biolentotzat eta matxistatzat hartzen dituzte. Horrek guztiak, alde batetik, jaiotzatik gutxietsiak sentitzen diren neskatuen bizitza zeharo markatzen du eta, bestetik, gorroto diskurtsoei eta delituei bidea irekitzen dio.

AURRERA JARRITZEKO DEIA

Bizipenak izan dituzte teoria eraikitze oinarri. Aurkeztutako diskriminazioaren aurrean proposamen ugari eta zehatzak egin zituzten. Hezkuntzan, esaterako, profesionalen formakuntza, eskola publikoaren aldeko apustua, zor historikoaren erreparazioa eta komunitate osoaren inplikazioa aldarrikatu zituzten. Osasunean, bestalde, herri ijitoaren jakintzak eta ohi-

turak balioan jartzea eta aintzat hartzea eskatu zuten, formakuntza interkulturalaren bidez elkarlaguntzaren eta elkartasunaren balioak mantentzearekin batera.

Enplegu eta gizarte eskubideen arloan, sinpleki, pobreziarik gabeko bizitzarako eskubidea jarri zuten mahai gainean: lanpostuetara iristeko eta hauek mantentzeko trabak kenduz, autoenplegurako erraztasunak jarriz eta dirulaguntzen baldintzapena ezabatuz. Gorroto diskurtsoen aurrean, jendartearen eta komunikabideen erantzukizuna azpimarratzeaz gain, erasoei erantzuteko eta ez isiltzeko beharra azpimarratu zuten.

"Proiektu politikoari jarraipena eman behar diogu eta eztabaidan sakondu", argi esan zuen Herediak. Horretarako aniztasuna eta bizipenen konplexutasuna aintzat hartu behar dela azpimarratu zuen, bai eta kide beltz eta indigenengandik asko dutela ikasteko ere. Esker hitz amaigabeen artean, batasunerako beharra azpimarratu zuten.

Claveriak eman zion saioari amaiera nazioarteko aliantza sendorako deia eginez: "Duela hiru urte Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan parte hartu genuenean nazioarteko aliantza sendo honetara batzeko deia egin genizuen. Horizontala izatea nahi dugu, baina protagonistak emakumeak gara. Dokumentu bat zabalduko dugu eta aliantza honetara atxikitzeko eskatzen dizuegu". ●

EHUK ez dio laguntza jarri nahi garun-paralisia duen ikasle bati, graduondoa “ez dela ofiziala” esanez

Noelia Da Costa Reviriego gasteiztarrak garun-paralisia du eta unibertsitatean laguntzaile bat behar du komunera joan, berokia erantzi edota ordenagailua mahaian jartzeko. EHUK, ordea, ukatu egin dio laguntzailea, egiten ari den graduondoko masterra ofiziala ez dela argudiatuta. Aldiz, masterra ofiziala dela dio berau ematen duen fakultateak. Bitartean, Da Costaren amak lau ordu igarotzen ditu fakultateko pasilloan, “laguntza eskatuz noiz deituko diodan zain”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DA COSTAK UTZIA

Zehazki, tetraparesia espastika du 26 urteko gasteiztarrak, besoei eta hankei eragiten dien gaitza. Gorpildun aulki elektrikoan mugitzen da eta bere ibilbide akademikoan laguntzaile bat izan du beti ondoan (Hezkuntzan Laguntzeko Teknikari Espezialista deitua). Duela lau urte Gizarte Lan Ikasketen graduan onartu zutenean ere, hala eskatu zuen ezgaitasuna duten pertsonen arretarako EHUren zerbitzuan, eta baietz erantzun zioten arren, ikasturtea bakarrik hasi zuen: “Esan zidaten ez zutela inor lan poltsan eta bitartean ikas-kideek lagunduko zidatela komunera joaten; ez nuen inor ezagutzen eta egoera deserrosoa bizi izan nuen, astez aste luzatzen joan zena, harik eta dekanon-

tzara eskutitza bidali eta sare sozialetan egoera salatu nuen arte. Bi egunera jarri zidaten laguntzailea”.

Lau urteren ostean, gradua bukatu eta Kudeaketa eta Giza-zerbitzuetako Berrikuntzako masterra hasi du. Berriro ere laguntzailea eskatu du, baina masterra ez dela ofiziala arrazoituz ez diote onartu eta graduondoari uko egitera animatu dute, kontatu digunez. “Laguntza behar izate hutsagatik ikasketa hauek egiteko eskubidea ukatzen ari zaizkit, ezin dut sinetsi”. Zur eta lur dago Da Costa eta Arartekora ere jo du dagoeneko.

Argitu al da afera: masterra ofiziala da ala ez? Eta ofiziala ez izanda ere, premia duen ikasleari ez al litzaioke laguntza bermatu behar?

EHUri galdetzen badiozu, ez da ofiziala, “berezko titulu” baizik [titulu ofiziala eta berezko titulua ezberdintzen ditu EHUK; master ofizialek doktoretza egiteko aukera ematen dute, besteak beste]. Ikasketak jarraituko nituela erabaki eta laguntzailea lortzeko aspaldi egin nuen kontsulta ezgaitasuna duten pertsonen arretarako zerbitzuan, eta behin matrikulatuta eta ikasturtea hasi baino bederatzi egun lehenago erantzun zidaten nik hautaturiko graduondoa ez dela titulu ofizialtzat hartzen, ez dagokidala laguntzailerik. Ez dut ulertzen graduondoa nola ez den ofiziala, EHUK eskaintzen duenean; ofiziala ez den zerbait eskaintzen du? Gainera, eskaintzan ez du inon ere jartzen ofiziala ez denik, ba al dakite berau ikasten ari direnek EHUren

hitzetan ez dela titulazio ofiziala? Eta honek guztiak esan nahi du medikuntza edo arkitekturako master ofizial bat egiten badut laguntza dudala, baina nire ikasketekin zerikusia duen master hau egiten badut ez dudala laguntzarik? Ez du zentzurik.

Sinesten zaila zait ofiziala ez denik. Are gehiago, masterra ikasten dudan fakultateko dekanorekin arabera ofiziala da. Kontuak kontu, EHUK eskainitako masterra da eta EHUKo ikaslea naiz. Alegia, ofiziala ez balitz ere, eskubideak bermatu egin behar dira, ez da nahikoa argudio. Araudia aldatu behar bada, aldatu dezatela, aniztasun funtzionala dugun pertsonon aukera berdintasuna garantizatzeko.

“

Araudiak dio behar bereziak dituzten pertsonen beren eskubideak bermatu behar zaizkiela unibertsitatean dauden epe osoan eta nik EHUKo ikasle izaten jarraitzen dut”

Pentsa, oinarri dute araudi bat non esaten den ofiziala ez den ikasketetarako ez dutela zertan laguntza eman, baina araudi horrek berak dio behar bereziak dituzten pertsonen beren eskubideak bermatu behar zaizkiela unibertsitatean dauden epe osoan eta nik EHUKo ikasle izaten jarraitzen dut [“*Arautegi honen xedea ezgaitasuna duten UPV-EHUKo ikasleen arretarako ekintzak arautzea da eta, orokorrean, hezkuntzarako behar berezia dutenentzako, unibertsitatean dagoen bitartean beste ikasleekin batera beren ikasketen garapena eta parte-hartze osoa, baldintza berdinean heziketarako duten eskubidea bermatuz*”].



Laguntza ukatu eta bestelako alternatibarik ez al dizute eman?

Graduondoari uko egitera animatu nautte. Nik uste beraiek pentsatu zutela jarraitzeari uko egingo niola, baina ez da hala izan eta haiek ere harrিতuta geratu direla. Nolabait, ikasketa hauetarako sarbidea betatu didate, diskriminatzailea da. “Laguntza behar horietarako, jo ezazu elkarteengana”. Hori ere entzun behar izan dut, ikaragarria da. Erakunde publikoa zara eta ikasleentzako eskaintza bat egiten baduzu, denentzat da ala ez da zilegi. Benetan denentzako eskaintza bada, jarri laguntzak eta bermeak, bakoitzak behar ezberdinak ditugulako.

Aniztasun funtzionala duen jendeak karrera amaitu ostean ez dituela ikasketak jarraitzen, hori ere adierazi didate, argudio bat balitz bezala. Eta hala bada ere, zergatik ez atea ireki ikasten jarraitu nahi duenari? Orain ni ari naiz egoera hau jasaten, baina etorkizunean aniztasun funtzionala duen beste pertsona bat izan daiteke. Ez dakit azkenean laguntza lortuko dudan, baina atzetik datozen pertsonen ibilbidea samurtzeko balioko badu, pozik geldituko naiz.

Eta orain, zer?

Gaur egun, nire ama graduondora etortzen da nirekin, Gasteizera eta Leioara [masterraren zati bat han da], eta fakultatean lau ordu ematen ditu pasilloan eserita, laguntza eskatuz noiz deituko diodan zain. Ez diot graduondoari uko egin eta pozik nago horrekin, uztea litzatekeelako nire printzipioen aurka joatea eta EHUri arrazoa ematea, eta frogatu nahi dut EHUK ez duela arrazoa gai honetan. Bide administratiboa bukatuta, EHUren erabakia berraztertze errekurtsoa jarria dugu eta ebazpenaren

“

Aniztasun funtzionala dugun pertsonoi etengabe eskatzen zaigu frogatzea egin dezakegula, egin aurretik ondorioa delako ezin dugula egin. Zuk niri esan gabe ere, jakitun naiz nire mugez, baina erronkak gustuko ditut”

zain gaude. Aldi berean, kasua Arartekoaren esku jarri dugu. Irakatsi didaten moduan, ametsak lortzeko borroka egin behar da.

EHUK dio unibertsitate inklusiboa dela.

Diskurtso tipikoa da, baina ez dator bat errealitatearekin. Erakunde publikoa zaren heinean, eta esaten baduzu zure zerbitzuak guztientzat direla, hala izan dadin saiatu, inklusioa hasten delako aniztasun funtzionala dutenei aukera berdintasuna eskaintzetik.

Dena den, nabarmendu nahi dut EHUk instituzio gisa egiten duena salatzen dudala, baina nire fakultatearen babesa izan dudala eta beren eskuetan dagoena egin dutela, laguntza hori lor ezan.

“Ametsak lortzeko borroka egin behar da”, diozu. Borroka asko egin behar izan al duzu bizitzan?

Oinarritzko zereginetan menpekotasun handia daukat eta egunerokoa ez da erraza, baina zorionez lagunarte eta inguru sendoa daukat eta familiaren babes handia. Eta gogorra eta mingarria den arren, garun-paralisia izanda zoriontsu izatea posible da. “Zer egin dezaket nik egoera honen aurrean aurrera ekiteko?” da nire filosofia. Nahiz eta aurrerapen handiak egin diren, gizartean oraindik ez dago onartuta aniztasun funtzionala (edo ezgaitasuna, niri berdina zait bata edo bestea erabili).

Zehazki hezkuntzan, askotan entzun ditut “ezin duzu”, “baina nola egingo duzu hori!” eta gisakoak, baina nik aurrera egin dut beti, oztopoak gaindituz eta ez etsiz. Institutuan ere entzun behar izan nuen, selektibitate ez aurkezteko, institutuaren nota jaitziko nuela-eta. Gizartean, aniztasun funtzionala dugun pertsonoi etengabe eskatzen zaigu frogatzea egin dezakegula, egin aurretik ondorioa delako ezin dugula egin, baina zergatik egon behar dut etengabe aurretik frogatzen aukeratu dudan hau edo hori egin dezakedala? Zuk niri esan gabe ere, ni neu jakitun naiz nire mugez, baina erronkak gustuko ditut eta probatu nahi dut nire burua. Eta esan dezaket, momentuz, garun-paralisia ez dela oztopo izan nire bizitzan ametsak lortzeko orduan. ●



errigora
errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Bat egiteko garaia da







Eskatu saskiak eta lagundu horien balioaren %25arekin Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari.

UTOPIA EXISTITZEN

DA

TEKNOLOGIA BURUJABEA
HERRITIK ETA HERRIRA



##

URRIAK 27
09:00ETAN
SAN TELMO
MUSEOAN

ANTOLATZAILEAK:



BABESLEAK:



ELKARLANA



DANI BLANCO

Lurrak herria adina behar du lurra herriak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Lurra herriari deika kanpainaren bigarren kolpea iritsi da. Pandemia garaian jarri zuten martxan proiektua ARGIAk eta Euskal Herriko agroekologia mugimenduak elkarlanean. Kutsatze arriskua zela-eta azokak debekatu zirenean, saltoki handiak irekita mantentzen ziren bitartean.

Erreakzio bat sortu zuen debekuhark eta bertako nekazarien sareari eta zuzeneko salerosketari babesa emateko mugitu zen jende bat. Hori du abiapuntu kanpaina honek, baina ez zen horretara mugaritzen sortu. Kolektiboan lanean jarraitzen dute. Mundua, lurra, larrialdi klimatikoa zuzenean lotzen baitira lehen sektorearekin, eta nekazaritzak momentuko eta etorkizuneko borroka horretan esku hartu beharra baitauka. Agroekologiatik buru-belarri ari dira lanean XXI. mendeko mundu mailako erronka nagusietakoa den honen aurrean eta ARGIAk ere kazetaritza lanetik ikusgarritasuna eman nahi dio mugimendu horri, lurrarekiko errespetuzko



Euskal herriko agroekologia mugimendurekin elkarlanean, kamiseta berriak kaleratu ditu ARGIAk; webgunean eta azoketan daude salgai.

jardueran, pestizidarik, kimikorik, toxikorik gabeko nekazaritzan, gertukoan sinesten duelako.

Kamiseta berriak heldu dira azokara. Irudia eraberrituta. Lehenengo logo hartako irudian islatu nahi izan ziren agroekologia hitz potolo horren azpian biltzen diren elementu asko. Detailez betetako diseina. Oraingoan lemari eman nahi izan diote indarra, irudia bera sinplifikatu eta letretan jarriz azpimarra. Euskal Herriko agroekologia mugimenduko ki-deek beren postuetan jarri dituzte salgai eta azoka.argia.eus-en ere erosteko aukera dago, baita Lasarte-Oriako egoitzako dendan ere. Ateratako dirua ARGIA proiektua eta Euskal Herriko agroekolo-

Euskarabildua jardunaldiak San Telmon

Teknologia eta komunikazioa uzartzen dituen Euskarabildua jardunaldia urriaren 27an izango da, Donostiako San Telmo museoan. *Utopia existitzen da* leloa darama aurtengo edizioak, eta teknologia burujabearen inguruan hitz egiteko parada izango dute bertaratzen direnek.

Egungo globalizazio basatiaren eta baliabide urrien testuinguruan, hainbat arlotan desazelerazioaz eta deszentralizazioaz hitz egiten den moduan, esparru teknologikoan ere zeregin handia dagoela ikusarazi nahi dute Donostiako ekitaldian.


Hainbat hizlari jardungo dira goiz osoko egitarauan, bai datuen garrantziaz, bai tokian tokiko proiektuez ere. Adibidez, Bartzelonatik Simona Levi eta Arnau Monterde etorriko dira, hezkuntzan digitalizazio demokratikoaren inguruan garatzen ari diren Xnet proiektua azaltzera.

Jardunaldia lametzak, ARGIAk eta Ametzagaña taldeak antolatzen dute, eta Euskarabildua.eus webgunean eta Argia.eus-en egongo da ikusgai Live storytelling eta streaming bidez.

gia mugimendua laguntzeko izango da, etorkizunean ere elkarlanean proiektu berriak aurrera eramateko.

Ingelesez munduak *amazing* dirudien honetan ezagun egin dute *Because there is no planet B* kanpaina. Ikusi ditugu denetariko produktuak slogan horrekin eta dirudi, baita ere, denok gaudela *agree* eta *involved* kausarekin. Baina zer gertatzen da lema hori bera euskaraz irakurtzen dugunean? Hor sortzen dira zalantzak. Politikoki zuzen eta okerrak. Lelo politikoak ote diren edo politikoak leloak. Dena dela ere, lurra herriari deika ari da eta oihu egiten du euskaraz, ingelesezko indar berarekin. ●

Stonoko matxinadaren ondorio gazi gozoak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Hego Karolinako kolonia (Ipar Amerika), 1739ko irailaren 9a. Hegoaldeko kolonietako esklaboen matxinada garrantzitsua piztu zuen Jemmy Cato kongoarrak. Kongoko 20 bat esklabo bildu zituen, horietako batzuek jaioterrian formakuntza militarra zutenak, armak lortu zituzten eta Floridara abiatu ziren askatasunaren bila. Bidean beste 60 esklabo inguruk egin zuten bat martxa armatuarekin. Stono ibaiaren inguruetatik abiatu zirenez, Stonoko Matxinada esaten zaio, baina Catoen Matxinada ere deitzen zaio, Cato edo Cater familia zelako Jemmyren jabe.

Martxak ez zuen lortu koloniako muga pasatzea. Hego Karolinako miliziak Edisto ibaian atzeman eta menderatu zituen. Ihes egin zutenek martxa berrabiaraztea lortu arren, astebete eta 30 km geroago geldiarazi zituzten behin betiko. Hildakoen balantzea ere esklaboen kontrakoa izan zen: matxinatuek 23-28 kolono hil zituzten, baina soilik gatazkan 35-50 esklabo hil zituen miliziak –eta gero beste hainbeste exekutatu omen zituzten, datu zehatzik ez dagoen arren–.

Arrakastarik izan ez zuen arren, hainbat ondorio ekarri zituen matxinadak; 1740an *Negro Act* edo Beltzen legea jarri zuten indarrean kolonian. Itxuraz, lege hark zenbait ondorio positibo ekarri zizkien esklaboei. Egia da haien gaineko kontrola zorrotzu zela, baina bizi baldintzak hobetzea ere jasotzen zuen



THE AFRICAN AMERICANS

legeak. Isunak ezarri zizkien gehiegizko lana eskatzen zuten edo zigor gogorregiak erabiltzen zituzten jabeei. Baina nola salatuko zituzten jabe horiek, legez esklaboen zuriaren aurkako lekukotza ematea debekatua bazuten?

Horrez gain, plantazioetako jabeek beste neurri bat bultzatu zuten: 10 urteko moratoria edo luzamendua esklaboen inportazioan. Alegia, hurrengo hamarkada ez zen esklaborik sartuko Charlestongo portutik. Luzamendua amaitu zenean ere, Hego Karolinako esklabistek uko egingo zioten Kongo eta Angola inguruko esklaboak inportatzeari. Baina horrek ez du esan nahi matxinadak esklabisten iritzia aldatu zuenik. Alderantziz, jarduera indartu eta egonkortzeko

eta beren interesak defendatzeko hartu zuten neurria: kolonietan esklabo jaiotakoak Afrikan libre jaiotakoak baino otzanagoak zirela uste zuten.

Eta egungo dantzan nahiz musikan eragina daukan hazitxo bat ere erein zuen Catoen matxinadak. Martxan danbor afrikarrak erabili zituzten kode gisa, esklabo jabeek ulertuko ez zituzten mezuak zabaltzeko. Horregatik, 1740ko legeak perkusio tresnak debekatu zizkien esklaboei. Orduan, gorputza erabiltzen hasi ziren musika egiteko, eta juba dantza edo zaplada juba sortu zuten. Adituen esanetan, jazzaren erritmoetan eragina izan zuen horrek eta hip hop dantzak esklabo ez hain otzanan erantzunean du jatorria. ●



J.C. MERRIMAN

Bikingoak birziklatzaile

Goi Erdi Aroan, Europa iparraldean, beira lehengai geroz eta urriagoa zen eta beiragile bikingoek prozesu garesti eta nekeza egin behar zuten bitxiatarako eta luxuzko produktuetarako beirazko aleak lortzeko. Edo hori uste zuten arkeologoen orain arte. Aarhuseko (Danimarka) unibertsitateko ikerlariak ale

horien konposizio kimikoa aztertu dute, eta ondorioztatu dute beira birziklatu egiten zutela. Zehazki, erromatar mosaikoetako teselak inportatzen zituzten. Nahikoa zen teselak birrindu eta tenperatura baxuan urtzea beste erabilera bat emateko, Antzinaroko ondarea Erdi Aroko ondare bihurtzeko. ●

JAN UDAZKENETIK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Udazkena fruituen sasoi nagusia da. Negua elikagaiz osatzeko fruituak eta horien aleak jasotzen ditugu. Fruituak ez direnak ere pilatzen ditugu, patataren tuberkulua (*Solanum tuberosum*) adibidez, baina haiek dira gehienak: altxasagarrik edo gordesagarrik (*Malus domestica*), negu-udareak (*Pyrus communis*), irasagarria (*Cydonia oblonga*), kuiak (*Cucurbita spp.*), artoa (*Zea mays*), babarruna (*Phaseolus vulgaris*), kiwia (*Actinidia deliciosa*), kiwaia (*Actinidia arguta*), mahatsa (*Vitis vinifera*), garia (*Triticum aestivum*), oloa (*Avena sativa*), garagarria (*Hordeum distichon*), zekalea (*Secale cereale*), baba beltz txikia (*Vicia fava var. minor*), gaztaina (*Castanea sativa*), ezkurra (*Quercus spp.*), mizpiria (*Mespilus germanica*), hurra (*Corylus avellana*), intxaurra (*Juglans regia*) eta abar.

Azken hori, intxaurra, elikagai osasuntsua da. Alea zuritu eta mamia ateratakoan garunaren forma duela ikusten dugu. Ez da oraingoxea garunarentzako ona delako ustea. Itxuraz erdi ustela ez den beste aiekakoa da uste hori; egia dela, agi danean. Elikagai on asko du intxaurrak. Erromatarrei eskertu egin beharko diegu mertxikondoarekin (*Prunus persica*), aranondoarekin (*Prunus domestica*) eta abarrekin batera intxaurrondoak guregana ekarri izana. Erromatarrei benetan interesatu zitzairen. Euskal Herriko isuri mediterraneoan bizi da ondo intxaurrondoak; ez du inolaz ere isuri atlantikoko lurretako hezetasuna maite, batez ere buztin lurretako ito behar hori; toki harritsueta, hor nonbait aterako da. Aukera baduzu joan zaitez Gardera, han Gardelar errearen aldamenean intxaurrondo erraldoi bat bizi da.



Intxaurrondoak ez da lagunak erraz egiten dituen arbola. Bakartia da, lagunartea ez da berea; esaerak dio: "Intxaurrondoak ez du lagunik nahi". Bere azpian ez du landaririk nahi, janaria kenduko dion inor ez bueltan! Horretarako "juglona" deritzan substantzia bat askatzen du hostoetatik, besteren hazirik ez dadin bere itzalpean. Gai hori bera hedatzen du lurtean sustraijearen bidez. Bakardadea iraupenerako bidea. Hostoek askatzen duten gai hori dela-eta bere azpian beste landareek bizitzeko duten ezina ikusita, intxaurrondoak fama txarra du; gai horixe du alearen zokoten berdeak ere, eta esaerak hala dio: "Intxaurraren zokolina jenez gero hil". Bere pean lo kuluxka eginez gero, burua joan egiten delako ustea oso zabaldua dago; esaerak dio: "Intxaurraren azpian lo egitea txarra". Kontuz, beraz, intxaurrondoak non lan-

datzen duzun; esaerak honela dio: "Intxaurrondoak etxe ondoan txarra". Ez jarri baratze, sagasti edo horrelakoen aldamenean; laster pairatuko dute intxaurrondoaren eraso, eta zenbat eta zaharragoa eta eraso gogorragoa. Gaztelaniazko esaera batek dio: "Apaiza eta intxaurrondoak oilategitik urrun". Erasotzen duten gaitzak ere bakanak dira; duela ez urte asko azaldu den eulia (*Rhagoletis completa*) izan ezik, ia ez du kaltetzen duenik. Hostoetan duen azido elagikoa da horren erantzule. Arbola gotortua intxaurrondoak.

Alea beste sagardotegiko bukoia da; esaerak hala dio: "Intxaurrak kuskua gogor, barnea goxo". Omega-3 bitaminak eta zer ez du intxaurrak. Jarduera neuronal hobetzen omen du, adimentsuagoa egiten du jalea. Koipe ona ere badu, baina koipea; esaerak honela dio: "Hiru edo lau intxaur nahiko". ●

LABORE BILBOREN ITXIERA

ZERTAN EGIN OHI DUGU HUTS KONTSUMO ALTERNATIBORAKO PROIEKTUAK ABIATZEAN?



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nabarmena da azken urteotan Euskal Herriko hamaika txokotan bestelako kontsumo ereduak bultzatzeko egitasmo ugari ari dela sortzen: kontsumo taldeak, kooperatibak, dendak... abian jartzen diren proiektu guztiek, ordea, ez dute beti lortzen denboran irautea eta hasierako helburuetara iristea. Zergatik, baina? Zertan egiten dugu huts? Maiatzaren bukaeran jakinarazi zien bazkideei Labore Bilbok ateak itxiko zituela, bost urteko ibilbide “zoragarri” bezain “gogorraren” ondoren. Antzeko beste egitasmoentzako balagarri izan daitekeelakoan, haien esperientziatik ikasitakoak konpartitu dituzte.

NEURRIA HARTZEKO ZAILTASUNA

Bertako produktuak eta kalitatezkoak eskuratzeko Bilbon zegoen zerbitzu faltari erantzuteko asmoz sortu zuten 2017ko abenduan Labore. Bost urteren bueltan mila bazkide izatea zen helburua, eta dimentsio horretarako izan zen diseinatua egitasmo osoa. “Lokal handi bat alokatu genuen, baina uste baino obra handiagoa egin behar izan genuen eta horrek hasieratik zorpeturik ibiltzea ekarri zigun”, azaldu dute lantaldeko

kideek. Antzeko beste esperientziei begira –Iruñeko Landare, Gasteizko Bio-Alai eta Oiartzungo Labore, esaterako–, benetan bideragarria zirudien mila bazkide lortzea.

“Goraipatzekoa da 600 bazkideetik gora izatera iristea, baina egia da horietatik 220 familiek soilik erosten zutela maiztasun jakin batekin”, diote. Dimentsioarekin lotutako beste arazo batekin ere egin zuten topo: “Tamaina horretako proiektuak langile gehiago behar zituen, eta zama gehiegi utzi genuen langileen esku”, diote. Lan karga handiak, gainera, proiektuko kideak dendaren kudeaketara mugatzea ekarri du, bestelako atalei nahi bezain besteko arreta eskaintzea zailduz.

NOLA DESBERDINDU SUPERREKO EKO-ATALETIK?

“Konturatu gara Bilboko errealitatea uste baino gordinagoa dela. Jendeak ez du erosketak haien auzotik kanpo egiteko ohiturarik, nahiz eta denda metro irteera ondoan egon. Bestetik, aipatzekoa da hiria hainbat supermerkatu katez betea dagoela eta elikagai industriak merkatu-nitxoak ikusi duela produktu ekologikoetan. Beraz, konpetentzia handia izan dugu inguruan, nahiz horiek gure filosofia bera ez izan”, adierazi dute. Km0 izendatutako produktuak, ikurrina daramatenak, eko-bio-gour-



met ziguiluk... saltoki handietan ohikoak bihurtu dira horiek guztiak. Nola asmatu benetan bestelako eredu baten aldeko apustua egiten dutenak bereizten eta lehenesten?

Lantaldeko kideek proiektua abiatzerakoan zuten indarra baino anbizio-tsuagoak izan zirela ondorioztatu dute, baina ezin uka anbizio horrek lorpen handiak ere ekarri dituenik: bazkide kopurua, sortutako harremanak, tratua, elkarlanerako prestutasuna... “Zentzu horretan balorazio oso ona egiten dugu”, diote, eta Laborek utzitako hutsunea betetzeko baldintza nahikoak badaudela nabarmendu dute. “Zapore onarekin gelditu diren 610 bazkideen zerrenda dugu, ekoizleen kontaktuak ere bai, beraz, neurri txikiko beste proiektu bat martxan jartzeko baldintzak badaude. Prest dagoen giza taldea behar dugu”, amaitu dute. ●

Nafarroako Patxarana

HEMEN DAGO NAFARROA

Reyno Gourmet

NAFAR KALITATEA

ELBIS REVER

“Pop-a ez da ideia puru bat, errealitate orojale bat baizik”

Hamabost urte bete ditu aurten Elbis Rever taldeak. Tarte horretan 500 abesti baino gehiago, ia 200 kontzertu eta lau elkarrizketa egin dituzte. Taldearen koordinatuak zeintzuk diren iradokitzen du datuak: pop talde bat izateko aspirazioaren eta bazterreko soinu eta jarrera baten artean dabilta zabuka, ezkutaketaren mugetan. Beren irudia zuzeneko performatibitatean eraiki dute batez ere, baina azkenaldian soinu propio baten bilaketara emanak dabilta. Horren erakusgarri da argitaratu berri duten *Happy Birthday* lana.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Duela 20 urte ezagutu zuten elkar Alba Burgosek (Bilbo, 1984) eta Natalia Vegasek (Astrabudua, 1984), Bilboko Arte Ederren Fakultatean sartu berritan. Garai oso bizi moduan oroitzen dute hura: *Los robots del espacio* proiektua abiatu zuten Miguel Angel García ‘Xedh’-ekin, eta “Colectivo pop”-en parte ere izan ziren, beste zenbait artistarekin batera. “Gauza mordo egiten genuen: adibidez, Arnold Schönberg-en diskoek zein sentsazio fisiko sorrarazten zizkiguten aztertzen genuen, Stan Brakhage-ren bideoak ikusten genituen, eta, oro har, Fluxus taldearen espiritua oso presente zegoen egiten genuen guztian. Noiz edo noiz irakasleren batek ere parte hartzen zuen kolektiboaren bilkurretan”.

Handik gutxira, Burgos Erasmus egonaldian Varsoviara (Polonia) joatear zela, Vegasek eta biek erabaki zuten talde bat sortuko zutela. Izena ere erabaki zuten, *reversible* hitzari [alde-*rantzika*garri, gaztelaniaz] buelta eman,

eta hara: Elbis Rever. Bueltan hitz egitekotan gelditu ziren. Baina Burgosek irakinaldi betean aurkitu zuen Varsovia, eta ezin talde bat osatu eta kontzertu bat emateko tentazioari eutsi: han ezagututako hainbat lagunekin –Janina eta Alexandra McCormackekin eta Faezeh Araerekin– eskaini zuen Elbis Reverren lehen emanaldia. Hori gutxi ez eta sei abestiko maketa ere grabatu zuen haiekin. Bilbora itzultzean jakinarazi zion Vegasi: “Listo, badugu taldea, eta hau da gure lehen diskoa. Mugi zaituzte, eta ikasi ahal dituzun guztiak”. 15 urte berandua-
go, Burgos Hong Kongen bizi da, Vegas Bilbon, baina Elbis Reverrek aurrera jarraitzen du, eta hori ospatzeko *Happy Birthday* biniloa argitaratuko dute urte amaieran. Burgos egun batzuetarako itzuli dela aprobeztatuz, Bilboko Zabalburu plazako terraza bat aukeratu dute elkarrizketa egiteko. “Ez digute alferrik jarri *Zabalburu sound* etiketa”.

Modu askotara ezaugarritu daiteke Elbis Rever. Baita ukaziotik ere.

Esaterako, ez duzue bereziki kalitate altuko soinua erabiltzen.

Beti izan gara zikinak soinuarekin. Grabaketa batean atzeko zarata sartzen bada, ez dugu sekula garbitzen. Horretan ez dugu bat egiten soinu teknikariek soinuaz duten ohiko kontzepzioarekin: nahi izaten dute lehenik soinu “garbia” grabatzea, eta zarata gehitzekotan, gero gehitzea. Ez zaigu ondo iruditzen. Demagun zerbait grabatu duzula, primeran atera zaizula, eta grabatu bitartean inguruko zakur batek zaunka egin eta haren soinua ere grabaketa sartu dela. Zergatik grabatu berriro? Laurehun aldiz errepikatuta ere ez zaizu berdin atarako. Gera dadila zaunka bere horretan.

Akatsaren estetika?

Bai, baina bilatu gabea. Askotan akatsa probokatzen da gero hura estetizatze-ko, eta guri ez zaigu hori interesatzen. Gehiago da esatea: “Hara, zein ongi dagoen bere horretan”. Ziur asko, *noise*-tik jasotako jarrera batekin du zerikusia –beste soinu mota batzuk ere entzun-



garriak direla aldarrikatzearekin-. Beditanik errespetatu dugu asko lehen-dabizikoz gertatzen den hori. Ez diegu abestiei buelta handirik ematen: grabatu, egunean bertan Soundcloud-era igo, eta beste zerbaiti ekiten diegu.

Ez omen duzue entseatzeko.

Gustatzen zaiguna da musika egitea. Gainera, zeri deitzen zaio entseatzeko? Gure kasuan, ez dugunez instrumenturik jotzen, ez du zentzu handirik. Ez dakizkigu abesti askoren letrak. Ikas genitzake, baina gero agian mozkortuta aterako gara eszenatokira, oso urduri, ez gara ezertaz oroituko eta gainera berdin izango zaigu -ondo pasatzen ari garen seinale-. Askotan egin dugu playback-a, gure ahotsen gaintik kantatuz, bestela deseroso gaudelako. Gure kontzertuek soinu txarra izaten dute ia beti. Oso zor-te txarra izan dugu zentzu horretan.

“Demagun zerbait grabatu duzula, primeran atera zaizula, eta grabatu bitartean inguruko zakur batek zaunka egin eta haren soinua ere grabaketan sartu dela. Zergatik grabatu berriro?”

Baina zuek ez al zineten zuzeneko talde bat batez ere?

Fama hori geratu zaigu, gure grabaziotik zuzenekora jauzi handia dagoelako ziur asko. Lehen agian musika ez zen hain garrantzitsua, eta eszenatokiko jarrerarekin osatzen genituen zuzenekoak. Orain, aldiz, eszenatokiko jarrera baretu dugu, baina oso gustura gaude egiten dugun musikarekin. Abestiak egiteko prozesua lehen baino askoz luzeagoa da. Zerikusia izango du elkarrengandik urrun egoteak. Hong Kongen eta Bilboren erdian bada-go Elbis Rever izena duen toki abstraktu bat: ez dago oso definituta, baina bada zerbait. Lehen kontzertuetan gertatzen zitzaigun gauza bera gertatzen zaigu

abesti bat amaitzea lortzen dugun unean: “Ai, orain bai; Elbis Rever bizirik dago”. Eta ez da ekoizpenaren maila teknikoa asko aldatu dugulako, baizik eta gero eta gehiago erreparatzen diogulako soinu bat edo atmosfera bat bilatzeari. Lehen berehalakoa zena orain jada ez da, denbora ematen dizu ohartzeko abestiaren zein alderdi landu daitekeen gehiago, eta horrek beste ikuspegi bat ekarri digu. Heldutasuna izango da [barrez].

Edonola, zuzeneko esperientzia konplexuago bilakatzeko saio bat baino gehiago egin izan duzue. Esaterako, denda txiki batean jo bitartean entzuleek kontzertua erakuslehoaren kanpoaldetik jarraitu behar izatea, Youtubeko streaming seinalearen bidez. Edo kontzertua Cam4 porno plataformaren bidez emititzea...

Bai, *streaming*-arena M-A Concept Store-n egin genuen –David Martín Angulo artistaren denda–. Garrantzitsua iruditzen zaigu esperientzia zehatz bakoitzera egokitzea: denda oso txikia da, erabate baldintzatuta geunden, eta hori otu zitzaigun. Eta Cam4 plataforma ere sarritan erabili dugu. Londresen bizi den jarraitzaile batek proposatuta hasi ginen. Zuzenean ikusi nahi gintuen, baina, distantziak medio, zaila zeukan. “Zuzeneko Cam4 bidez eman dezakezuela otu zait”, bota zigun, eta horrela hasi ginen. Plataformaren bisuala oso polita zen: gu kontzertua ematen, eta inguruan jendea bata besteari felazio bat egiten. Ia bi urtez aritu ginen hala-koak egiten.

Bestelako gauzak ere egin ditugu. Adibidez, Larraskiton emandako kontzertuei deitu genien “sofako kontzertua”, “oheko kontzertua”, “eserlekuko kontzertua”. Batean sofa batean eserita ginen, bestean ohean etzanda, edo eserleku txiki baten gainean jesarrita. Beste behin erakusketa bat egin genuen igerileku baten barruan. Ez da hainbeste auzi performatibo bat; besterik gabe, situazioan jartzea gustatzen zaigu.



“Artearen mundua kaka zaharra da, eta musikarena ere bai. Bien bazterrean egotea eduki dezakezun posiziorik onena da, bizimodua aurrera ateratzeko behar ez badituzu behintzat”

Zuen buruekin ezkutaketan aritzea gustatzen zaizuela ematen du.

Bai, “egon-egon” erako jolas bat da guretzat. Baina natural ateratzen zaigu. Lotsarekin du zerikusia ziur asko, oso gaizki pasatzen dugu kontzertuen aurretik. Gure publikoa oso arraroa da: aurki ditzakezu gizon zahar heteroak –zail da jakiten zehazki zergatik etortzen diren–, edota maritxu oso gazteak. Ia elkar joka has daitekeen jendea da gure publikoa. Hori gertatzen da Bilbon: azaltzen zara El Balcón de la Lola-ra igande batean eguerdiko ordu bietan, eta hor denetarik elkartzen zaizu.

Entzuleei beldurra edukitzea, hori ez nuen espero...

Tira, entzuleak arraroak izateaz harago, beldur eszenikoa daukagu. Betidanik eduki dugu. Ez zaigu iruditzen musika talde arrunt bat garenik. Zuzenekoetan, askotan, geure baitatik ateratzen gara, eta egiten ari garenari erreparatzen diogu kontzertua kanpo-

tik ikusten ariko bagina bezala. Agian beste musikariei ere gertatzen zaie, baina oso bortitza da. Lotsatu egiten zara. Ikusten dituzu Bad Gyal-en bideoak, nola ahalduntzen den, zein jarrera sendoa daukan, nola jaten duen eszenatik... guk ez dugu hori sekula sentitu. Noski, bizi izan ditugu eromen uneak, baina hurrengo istantean galdetzen genion geure buruari: “zertan zabiltza?”. Edo, “orain abesti hau? A ze beheraldia”. Zenbaitetan, abesti bat erditik moztu eta hurrengora igarotzen gara. Zein taldek egiten du hori?

Sumatzen zaizue anbivalentzia bat: batetik, pop talde bat izateko aspirazioa; bestetik, zuen benetako posizioaren kontzientzia garbia. Zuku asko ateratzen diozue joko bikoitz horri.

Izan daiteke. Halere, gero eta aspirazio txikiagoak ditugu. Heldu bilakatzen zoaz, eta bai, mantentzen duzu ideal bat, baina aspirazioa eta errealitatea gero eta gertuago daude. Are, azkenaldian lortu dugun soinuak hitz egiten du bi

mundu horiek bat egiten duten espazioari buruz. Pop-a guretzat da egitearen metodologia: egitura errazak erabiltzea, estribilloa errepikatzea, besteen musikak hartzea... Andy Warhol-ek egiten zuena horixe da: egunkariko irudi bat hartu eta seriean erreproduzitzea. Hortik kanpo, zer da pop-a? Egun pop-a ez da ideia puru bat, kapitalismoaren bidez transmititu den errealtate orojale bat baizik. Dena da pop-a: punka da pop-a, rocka da pop-a. Denda bateko kartela da pop-a. Gure irudia ere izugarri sinplifikatu da: lehen kontzertuetako poster oso landuak egiten genituen; orain atzealde beltz baten gainean hizkiak jarri, eta kito. Oso minimalak bihurtu gara. Aipatzen dituzun bi alderdiak elkartu zaizkigu, garaiak halakoak direlako.

Artetik zatozte, musika egiten duzue, baina era berean arte eta musika munduen bazterrean zaudete. Nola bizi duzue hori?

Ongi. Erlaxagarria da, ez dugu inolako exijentziarik sentitzen. Artearen mundua kaka zaharra da, eta musikarena ere bai.

Bien bazterrean egotea eduki dezakezun posiziorik onena da, bizimodua aurrera ateratzeko behar ez badituzu behintzat. Arte munduan ez gara sekula egon, baina buruak ez daki bereizten eta oraindik lotuta gaude unibertsitate garaiko ideia batzuei: jarraitzen dugu irudiaz hitz egiten, edota estetikaz. Eta musikaz zer esan... zer da musika munduan egotea? Trapaz geroztik, mundu hori izugarri barreiatu da. Edozer egin dezakezu edonola. Agian orain musika munduan egotea da Instagramen elkar jarraitzen dugun jende sare batean egotea. Zure antzeko ideiekin lanean ari den jendea ezagutzen duzu, zerbaiten parte zarelako sentsazioa eragiten dizuten komunitate birtualak sortzen dira. Gero eta gehiago dira musika industriaren parte izan gabe musika egiten dutenak.

Happy Birthday lana argitaratuko duzue urte amaieran, taldearen hamabosgarren urteurrena ospatzeko. Nolakoa izan da prozesua? Kontua da iaz nahasi egin ginela, eta pentsatu genuela hamabost urte betetzen

genituela, baina hamalau ziren. Orduan, hamalau urteak ospatzeko festa egin genuen, eta *tape* bat ere atera genuen Crystal Mine-rekin. Baina behin hamalauak ospatuta, hamabostak ere ospatu behar genituela erabaki genuen. *Tape*-aren harira kanta zahar asko entzun behar izan ditugu –500dik gora ditugu, bidean galdu direnak kontuan hartu gabe-. Hasi berordenatzen, kantu berriekin lotzen... eta ohartu gara ematen zutela binilo bat ateratzeko. Prozesuan zehar saiatu gara giro bat sortzen, guztiari homogeneotasuna ematen, Elbis Rever paisaia bat sortzen. Ordu asko izan dira: sartu nahi genituzkeen abestiak zerrendatu, ordena erabaki, bataren eta bestearen arteko trantsizioak landu... bide mantsoa eta lasaia izan da –guztira zazpi edo zortzi bertsio desberdin egin ditugu-. Bien bitartean, pentsatzen genuen: “nork du disko-jogailu bat gaur egun?”. Guk ez behintzat. “Pijada” bat da.

Zer asmo duzue aurrerantzean? Proiektu zehatzik ez. Horrela segitzea, ez besterik. ●





LIBURUA

Esna



FAXISMOAREN AURKA BORROKAN

CLARA ZETKIN
(ITZ.: MAIALEN BERASATEGI)

KATAKRAK, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Ikasia dut jada liburu bat motza edo txikia izanagatik ez dela zertan erraza, arina edo azalekoa izan behar. Eta, hala ere, sarritan sorpresaz hartzen nau motxilan pisurik ez duen objektuak asko pentsarazten didanean; esaldiak bi aldiz irakurri beharra sentitzen dudanean.

Katakrakek 2022an argitaratu duen liburu primizia atsegina izan da autorea aurretik ezagutzen genuenontzat. Izan ere, orain arte Zetkinen idatzi duenik ezin izan dugu euskaraz irakurri. Garai-kidea eta laguna zuen Rosa Luxemburg ezaguna da gure artean; Zetkin, ordea, ahanzturaren basamortuan galdua egon da urte luzez eta emakumeek (H)istorian bizi duten patua jasan du: aitorten eta interes falta.

Faxismoaren aurka borrokan liburuak pasarte desberdinak jasotzen ditu: Zetkinen idatzitako bi testu garrantzitsuak gain, argitaletxearen sarrera, konferentzia bat eta John Riddellen testu

bat, pertsona eta erakundeen eranskinarekin batera.

Hasieratik da arretaz irakurtzeko liburu. Zati batzuetan dentsoa izan daiteke eta kargatuegi dagoelako sentazioa eman dezake. Pentsalari eta teoriarari baten ahotsa da irakurriko duguna: bizi izan zuen garaiaren analisi zuhurra eta kritikoa egiten du erreferentzia historiko, politiko eta ekonomiko betetako planteamenduan.

Ideiak garbi dituenaren tonu sutua erabiltzen du bere diskurtsoan eta irakurlearen arreta bereganatzeko eta interpelatzeko asmoa du, faxismoaren aurka esna gaitzen nahi baitzuen. *Esna gaitzen* –orainaldia erabili badut ez da akats gramatikalak ihes egin didalako, ez bada testuek duten gaurkotasunak beldurra ematen duelako–: “bereziki garrantzitsua da faxismoak horditu eta pozoitu dituen proletario-sektoreak esnatzea”.

Diskurtso hegemonikoak saldu nahi zuen faxismo koherente eta zirrikiturik gabearen ideiarekin hausteko argudio testu zentzudun eta adibidez betea da lehenengoa. Faxismoari aurre egiteko proposamen oso bat planteatzen du bigarren testuan. Sarrera eta beste bi testuetan informazio gehigarria aurkituko dugu, autorea eta garai historikoa kokatzen lagunduko diguna.

Mende oso bat aurretik idatzitako honek egun zentzua izateaz gain, bizi dugun egoerarako baliagarri izaten jarraitzen duela ohartzeak bi gauza pentsarazi dizkit: batetik, desagerrarazi nahi izan duten emakume argi, azkar eta karismatikoa izan zela Zetkin. Eta, bestetik, proposamen politiko gisa Katakrakek liburu euskaratu eta argitaratu izana eskertzekoa dela oso. Gure mundua birpentsatzen eta ulertzen lagunduko digun tresna izan dadila liburu. ●



MUSIKA

Denboraldi hasiera errusiar erara



EUSKADIKO ORKESTRA

Euskadiko Orkestra.

Zuzendaria: Robert Treviño.

Bakarlaria: Alexei Volodin (pianoa).

Egitaraua: Falla eta Shostakovitxen lanak.

Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.

Data: irailaren 23a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Tragedia gaintzea da Euskadiko Orkestraren abonu denboraldi berri honen leloa, errusiar musikak nolabaiteko protagonismoa izango duen denboraldia, hain zuzen ere. Eta horren erakusgarri, denboraldiko lehen kontzertuak bakarlari errusiar bat eta Shostakovitxen sinfonia handienetako bat biltzen ditu, egitarau biribil batean.

Abonamenduko kontzertuen lehen saio honek *Tragedia* titulua zuen, nahiz eta izenak programa osatzen duen bigarren obrarekiko soilik izan zentzua. Hain zuzen ere, kontzertuari hasiera eman zion obra, Manuel de Fallaren *Noches en los Jardines de España*, izaera inpresionista duen obra da, Andaluziako hainbat lekuri lotutako oroimen, sentsazio eta sentimenduz betea. *Tragedia* sentimendutik urrun dagoen musika usaina, beraz. 1919an estreinatua zen Debussyren

eta Ravelen eraginak biltzen dituen lan fin hau, eta Alexei Volodin errusiar piano-jotzaileak oso interpretazio inspiratua egin zuen Gasteizen. Agian obra hau ez zen piano-jotzaile honen ezaugarrietara hobekien egokitzen, baina Volodinek egin zuen irakurketa oso sentikorra izan zen –une batzuetan, nire ustez, sentikorregia–, teknika bikain batekin eta orkestrarekin fusio bikaina lortuz.

Beste erreperitorio mota batean entzutea gustatuko litzaiguke, Rachmaninoven, adibidez, konpositore horren erreferentziatzko interpretea baita. Baina Fallarekin konformatu behar izan genuen, eta Chopinen propina pare batekin, bakarlariaren soinu bikaina erakutsiz.

Tragedia, ederra eta asaldagarria, Dimitri Shostakovitxen do minorreko op. 65, 8. sinfonia intentsoarekin iritsi zen.

Errusiar musikariak konposatutako *ger-rako sinfonietako* bat da, 7. sinfoniarekin batera, non Bigarren Mundu Gerran errusiar herriak jasandako sufrimendu eta drama kontatzen duen. Obra hau 1948an estreinatua zen, berarenganako desprestigio-kanpaina baten erdian, herriarentzat obra ulertezintzat jotzen zelako, eta, beraz, herriarekin zerikusirik ez zuelako, ustez.

Zorionez, 60ko hamarkadatik aurrera, balioa eman zaio, eta gehien programatzen den Shostakovitxen sinfonia ez bada ere XX. mendeko sinfonia handienetako bat da, espresiboa eta emozioz betea. Robert Treviñok obra honen ñabardura adierazkorrak areagotu zituen eta indarrez beteriko uneak lortu zituen, bai lehen mugimenduan, bai hirugarren mugimenduaren *Allegro non troppo* bikainean. ●



Del Rigodón, bai esan?

 IÑIGO SATRUSTEGI

James Bond-en gisara sartu dira antzokira Ane Gebara AKA Lola del Rigodón, edo inspektore zahar herrera, eta Josune Vélez de Mendizabal AKA Susana Hotkins ikertzaile hasiberri, eder eta anbiziotsua.

Ezaguna egiten zaidan bionbo baten aurrean, etxe bateko gela bat. Erdian, hildako bat. Thriller absurdo gisa aurkeztu dute Les Bobè Bobékoek (*H) ondoko gela*. Rigodónen esperientzia eta jarrera garratzak dira motibatuegi dagoen Hotkinsen aurrean. Kafe bat, bi, hiru... Olo esnedun ebakia eta hutsa. Konturatzerako, kartoizko edalontziz bete dute hilketaren eszena.

Behaketak, testigantzak, grabaketak. Baina ezer ez. Egunek aurrera egin ahala, ez dago modurik heriotzaren be-

rri izateko. Bikoteak ahal duena egiten du: arreta eta egia dira zaharrenaren tresna baliotsuenak. Gazteenak, berriz, ITT, OCO eta BTB masterrak egin ditu, susmoa dauka espektoren bat dagoela etxean. Baina ez da inor, eta uko egin beharko die ikasitako teknika berritzaileei. "Heriotza bakoitzak ahaztuko ez duzun irudi bat utziko dizu, Hotkins", Rigodonek nagusitasunez.

Tarteka argia joaten da. Eta tarteka ere telefonoaren txirrin ozena entzuten da. Ez dago inor telefonoaren beste aldean. Edo bai? Etengabe ari dira txorakeriak egiten: zarata bitxiak ahoarekin, esajeratutako mugimenduak edo txiste txarrak, txorizoekin jolasean... Denek egiten dugu barre, baina baten bat ia lehertzearaino ari da. Baina hau serioa

(H)ONDOKO GELA

NORK: Les Bobè Bobé

NON: Zabalganako
Gizarte Etxea (Gasteiz)


NOIZ: Urriak 1

da. Zerbait dabil ondoko gelan eta hildako bat utzi du. Nork edo zerk? Guztiz argi ez zait geratu bele erraldoia edo odolkiak botatzen zituen lanpara moduko txurroa izan den. Iraganeko istorio eta mamuak ekarri dituzte gogora. Tiroketa bat ere bai. Orduan bai argitu kasua.

Esperientzia oso bat izan da Zabalgarainoko lur-puntaraino joatea larunbat iluntzez, baina merezi izan du berriz ere tandemaren lanak, zeina Jason Gerrak zuzendu baitu. Mimos —eta seguru, barre askoren artean— prestatutako lana da, labetik atera berri dena ia. Ahal dela, joan zaitetze haiek ikustera, edo hobe, eraman itzazue zuen herri eta auzoetara. Gauza serioa da bai, baina batez ere absurdoa. ●



Hitz gezidunak

BURUZAGI ARABIA XUME, UML	SASTRAKA, SASI HOR BERTAN	NORBAIT	POLIZIA NAZI EZPELETAKO PIPERREZ EGINIKO JAKI	HEMEN DAGOENA DOZENA ERDI	ANESTESIKO MOTA KOPURUA HANDITU	NAFARROAKO UDALERRIA ANTZEKOTA-SUNA, ANTZA	
		NASSAUKO HERRITAR SUARI DARIONA					
KONKOR BERRIRO EROSI				PERTSO-NAIAREN IZENA SUFREAREN SINBOLOA			
					NAFARROAKO HERRIA OINARRIZKO EDARI		
KOMUNI-KABIDE MOTA MODU ATZIZKIA PERTSO-NAIAREN ABIZENA			 <p>DANI BLANCO</p>			LOTAN BALKOIA	
	TREBEAK, IATIOAK					ARNAS EZAK HILA ARNALDO... POLITIKARIA	
BIZKAIKO IBAIA UKATZEKO HITZA							
	BYTE BIHOZMINA, NAHIGABE						KOPE UGAZTUN HARAGIJALE
...-APA, HITZEZ HITZ ABEREAZ ZAINTEZKO LANBIDEA		EUSKAL FONEMA ERREPIKATUA, LOGURAREN EULIA	HILBIETAKO IDAZKUN BEGIRADA (ALDERANTZIZ)	OXIGENOA ZEIN TOKITAN	JAINKO EGIPTOARRA SABELEKO ORBAIN	PARKE ZOOLOGIKO	
						AZKEN LETRA IKUSI (LABURDURRA)	
APAIZ NAGUSI JUDUA BALDAR, TRAUSKIL			KONTRAKOTASUN TONA				
				ZELAKO			

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

1	2		7	9	3	6	4	
		3						1
9			6	1	8	2		
		3		9	1		7	
	9	1			3	8		
	1		7	6		5	9	
3	7		8	5				
	6			4			2	
	4	5		7		3		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Biki.
2. Zezen zikiratuak.
3. Iruzurra, engainua.
4. Koaderno.
5. Beldurra, izua.

EBAZPENAK

1. BIZKI
2. IDIAK
3. ZIRIA
4. KAIERA
5. IKARA

8	1	6	1	7	1	9	1	5	4	2
8	1	6	3	4	5	7	2	8	1	6
3	6	7	2	8	5	4	1	6	9	3
4	3	1	8	7	6	2	9	5	8	4
7	6	9	1	5	2	3	8	4	5	6
5	8	2	3	4	9	1	6	7	1	6
9	7	4	5	6	1	8	2	3	3	3
6	5	3	4	2	8	7	9	1	1	1
1	2	8	7	9	3	6	4	5	4	5

O	K	V	L	A	N	S	T	E	K	V	R	V	T
O	I	Z	I	S	O	P	O	S	V	N	V	A	
Z		V	Z	V	I	N	T	Z	V	A	Z	A	B
	R	A		O	R		T		I	P	I		
N	I	R	I						B		Z	E	
I	G	E	T	O					V	A	L	E	
V	O	I	T	O					X	V	F		
O	L	U	R	U	R				T	O			
S	V	A	R	V	I	S	O	R	R	E	R	E	B
I	N	E	U	E	X	O	K	R	R	O	K		
R	V	A	U	T	V	S	V	N		E	H	E	X
O	E	H	S	I	B	I	B	X					

Irati Guarretxena Sandamian

@TITARE_TATTOO



ARKATZA, HARIA ETA TINTA

Etorkizun "oparago" bat izango zuelakoan, Arte Ederrak ikasteari uko egin eta Bartzelonara joan zen diseinua ikastera. Gustura joan zen, argi zuen, ordea, ikasketak amaitu eta etxera itzuliko zela, Euskal Herrira. Lanera. Amonaren etxean ditu marrazketarekin lehen oroitzenak. Lurrean etzanda, arkatza eskuan. Eta oso present du bere baitan sortzen zen sententzia, gaur egun berdina baita: barne bakea. Burua zuri, eskua aske eta sormena pil-pilean. Emarian. Arkatza hariaren orratz bilakatu zen geroago, eta orain urte gutxi, tintadun orratz erabiltzen du, tatuatzaile lanetan.

"Tatuaje bakarra duen pertsonarik ez dut ezagutzen"

Diseinatzaile gisa, Letitare marka sortu zuen Irati Guarretxena Sandamianek diseinu ikasketak egin orduko. Ordura arte bezala, bizitzaren erritmoak bultzaturik eman zuen horretarako urratsa. Modaren zikloek eta azkartasunak gogaiturik, kontziente zen ez zela gustura ari. Konfinamenduari asko zor diola aitortu digu: bere buruari tatuatzaile izateko aukera eskaini zion, eta utopia zena praktikara eraman zuen.

AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ **IRANTZU PASTOR**

Moda diseinatzaile izatetik, tatuatzaile izatera egin duzu jauzi.

Konfinamenduan, txerri eta laranja azalak tatuatzen hasi nintzen. Ilustrazioaren beste teknika bat probatzen hasi nintzen. Banuen makina etxean, baina ez nion sekula denborarik eskaini. Beldurra edo errespetua ematen zidan. Probatzen ari nintzela, konturatu nintzen atsegin nuela eta, ordura arte murgilduta nengoen modaren munduak ez bezala, honek iraunkortasuna duela. Berehala sentitu nuen lotura handia. Plazera. Eta txikitik marrazten bezala, neure irudimen, gorputz eta gogoa elkar loturik sentitzen nituela. Moda munduan nenbilen ordura arte, ez oso gustura bertan nagusitzen den lan erritmoarekin. Lana banuen, ordea.

Lagun batek tatuaje bat egiteko eskatu zidan eta ohartu nintzen geroz eta gehiago zirela eskatzen hasten zirenak eta, orduan, erreala izan zitekeela pentsatu nuen. Letitare nire markari buelta bat eman

nion, eta eskari bidezko lanak egiteari ekin nion, urtero bi bilduma sortu ordez. Hala eman nituen lehen urratsak.

Konfinamenduak barruko nahia egi bilakatzen lagundu zizun?

Baietz esango nuke. Marrazketa baztertzen bizi izan nintzela konturatu nintzen, garrantzitsua ez balitz bezala, marraztearekin ogibiderik sortu eta garatu ezingo banu bezala. Txiki txikitatik marraztu izan dut nik. Amonaren etxean helduak mahai ondorenean hitz eta pitz ari ziren bitartean, lurrean gogoratzen dut neure burua. Arkatza eskuan eta paper zuri bat aurrean. Orduak pasatzen nituen horrela.

Mundua gelditu izanak zinez nik nahi dudana egiteko ausardia batzeko indarra eman zidan. Eta lehen esperimendua neure buruarekin egin nuen; oso autodidakta da mundu hau eta ez nuen hanka sartu nahi. Berehala ohartu nintzen nire lekuan nengoela.



"Estetika sortzen da diseinuarekin eta gorputzarekin jolasten hasten zarenean".

Haria eta orratza maite ditut eta segitzen dut, baina tinta eta orratzarena beste zerbait da. Oso zaila zait azaltzen, konexio berezi bat lortzen dut. Izurik gabe jarduten dut, neure buruaz oso seguru eta eskaturikoa betetzeko zailtasunik gabe.

Zein da zure estiloa?

Arkatzarekin ere trazo zalea naiz, oso lineala izan naiz beti. Paper zuri batekin eta kolore askorik gabe marraztu izan dut beti, eta tatuajeekin ere bide beretik garatu naizela ohartu naiz. Gaur egun oso eskuragarria da tatuatzea eta jendeak niri behintzat tatuaje sotilak eskatzen dizkit. Estilo tradizioaletik, ohikotik, aldentzen diren diseinuak eskatzen dizkit.

Estetika bere zentzu onenean sartuz, ongi elkartu daitezke estetika, esan nahia, sinbologia... Jendeak bozetoak eta argazkiak ekartzen ditu eta marraztekoa elkarrekin osatzen saiatzen naiz. Zerbait oso pertsonala egitea lortu arte. Norberak egiten duena benetan identitarioa izateko. Berea, pertsonala eta bakarra. Ez dakit zergatik, baina emakume asko etortzen zaizkit, eta ohartzen naiz erro-

tik ateratzen direla eskakizunak. Jendeak ez du edozer tatuatzen.

Tatuatzaileak sortzaile zarete?

Bezeroarekin elkarlanean aritzea gustatzen zait. Elkarrekin sortzea tatuatuko duen hori. Askotan ideiak ez ditu oso garbi izaten gugana jotzen duenak. Nahi duena badaki, baina hori nola irudikatu ez, ordea, eta hori izaten da gure lana. Beraz, konfiantza ematen didatenean beraiek nahi duten hori sortzeko, oso pozik jartzen naiz. Horrek betetzen nau, inplikaturik sentitzea gustatzen zait. Oso momentu intimoak sortzen dira, gertutasun berezi bat. Azken batean betirako den zerbait sortzen ari zara eta emaitzarekin pozik gelditzea ezinbestekoa da. Tatuaje bakarra duen pertsonarik ez dut ezagutzen. Bat egin eta beste bat nahi izaten dugu berehala. Sarri gertatzen zait hori, amaitu eta egun gutxira itzultzea bezeroa beste bat egiteko hitzordua hartzera.

Estetikari garrantzia ematen diozula esan duzu, badago mugarik?

Mugak apurtu daitezkeela esango nuke,

estetikatik haratago. Hatzetan tinta zabalitzen dela esaten dute, adibidez, baina halako egoeretatik at, tatuajeak pisu sinboliko handia duenean, esate baterako, aske sentitzea atsegin dut. Gorputzak hitz egiten du. Azal guztiak ezberdinak dira, tintak ezberdin eragiten du azal batean ala bestean. Estetika sortzen da diseinuarekin eta gorputzarekin jolasten hasten zarenean. Esan nahia argiki zehazturik, saia gaitezen pertsonarentzat eroso eta polita den zerbait sortzen. Gorputzaren tolesak, kurbak... horrekin aritzea atsegin dut.

Aitortu al diozu zeure buruari diseinatzaile eta tatuatzailea zarela? Artista, sortzaile, azken batean.

Artista naizela aitortzea kosta egiten zait. Ez dut neure burua artistatzat jotzen. Artea beharrak betetzen dituen ofizio baten emaitza baino zerbait gehiago izan behar dela iruditzen zait. Gaur egun kontsumitzen dugun moda artetik asko urruntzen dela esango nuke. Tatuajeen munduan, aldiz, sorkuntza prozesuan sartzen naizenean, orduan bai. Nire pasioa da. ●

Ekilore-zopa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Klimaren aldeko ekintzaile batzuek Van Goghen *Ekiloreak* koadroari zopa poto bat jaurtitzeaz, lehenbizi, zera esan behar da: munduko intentziorik onenarekin egindako ekintza izan dela. Bigarrenik berriz, aurrekoari erantsi behar zaio munduko intentziorik onenak ez duela askorik inporta ekintzara pasatzen zarenean, baloratuko dena egin duzun hori izango delako, ez zer asmorekin egin duzun. Helburu nobleekin sarritan gauza desastrosoak egin baitaitezke, idazten diren maitasun-poe ma edo, are, tematika bereko bertso-sorta gehienek erakusten duten bezala. Bai, bihotz-bihotzetik atera zaizu, baina *cringe* pixka bat ematen du. Eta zure buruan ideia bikaina zirudien, e? Ba gauza bera honekin.

Egia da komunikazio aldetik “funtzionatu” duela. Joan den astean bideoa zabaldu zenean ez zegoen beste konturik sareetan eta, inoiz asko sinetsi ez dudana kontsignak dioen moduan, “hitz egin dezatela nitaz, gaizki-esaka aritzeko bada ere”. Ekintzak lortu du, bai, larrialdi klimatikoaz hitz eginaraztea. Problema bakarra da 2022an gaudela eta ez, demagun, 1992an. Kontua jada ez dela hainbeste “arazoa ikusaraztea”, “jendea kontzientziatzea”, eta abar, helburu egingarri batzuk agenda politikoan sartzea baizik. Bide askoz malkartsuagoa aktibismo espektakularrean aritzea baino.

Bai, badakit; eta ez baneki, Twitterreko sermoilariren bat hor legoke esateko: “Jendea gehiago haserretzen da koadro bati zopa pixka bat bota diotelako klima aldaketak dagoeneko Pakistanen eragin dituen 1.500 hildakoengatik baino; edo azken 50 urteetan munduan desagertu den animalia-populazioen %70agatik baino”. Ekiloreen errepresentazio piktoriko baten profanazioak asaldatzen gaitu eta, aldi berean, oso



posible da bizitza osoan benetako ekilore bat ukitu ez izana. Esaldi hori –erdi-arte garaikideko erakusketako jargoi, erdi-Paulo Coelho– litzateke akzio honen irakaspentxo morala, azaleko geruza batean.

Baina oraindik ez dut ulertu zeren kulpa daukan erabateko miserian eta -1 belarrirekin hil zen margolari batek edo haren koadroak hondamendi ekologikoaren saltsa honetan. Agian ekintzaileek saboteatu izan balute Londresko museo publiko batean dagoen obra baten ordez, nik zer dakit, beraien ekintzak finantzatzen dituen Aileen Gettyren aitonak Los Angelesen fundatutako museo pribatuko piezaren bat... Rubens, Tiziano, Monet edo Degas leuzkakete aukera-aukeran. Baina ez, orduan ere “arte ala planeta” deb bateak jarraituko luke izaten abiapuntu galtzaile bat, kale itsu bat, ezer ulertzeko edo eraldatzeko balio ez duen marko

bat. Hori bai, bilobak pagatu izan balu aitonaaren kolekzioko obren kontrako matxinada, gutxienez ekonomia zirkularraz hitz egin ahalko genuke.

Ez du horrelakorik egin. Ez du benetako ekintzarik finantzatu ere, zeren hori da bestea, esaten ari garela koadroari zopa bota diotela, baina, zehatzak izateko, esan behar genuke koadroa babesten duen kristala geratu dela “salda badago” esanez. Ekintzak hasieratik aurreikusi du obra babestuta dagoela, ondare artistikorik ez kaltetzeko pentsatuta dago. Alegia, *fakaintza* bat da. Lehen momentuko keinu erradikalak eragindako inpresioaren ondoren, berehala nagusitzen da sentsazio erosoago bat: dena ordenan dago, ez da gertatu atzera-bueltarik gabeko ezer. Klima aldaketarekin gerta daitekeenaren justu kontrakoa adierazten du, hortaz. Eta hori nahiko perbertsoa da, segun eta nondik begiratzen duzun. ●



Non naturalak
jogurtak bakarrik diren

Bertsolari

Txapelketa

Nagusiko

saioen liseriketa

kolektiboa,

gaingabetu gabe



Bideo-podkast berria,

Urriaren 25etik aurrera

entzun eta ikusi ARGIAN

Jarraitu



Laguntzailea

Goenaga
YOGUR

120

San Telmo Museoa
1902 — 2022

MAIALEN CHOURRAUT

Piraguita
Domina olinpikoduna
2012, 2016, 2020

AUKERATUTAKO OBJEKTUA:
Arraunlaria
1930
Aurelio Arteta Errasti



STM
nire
pasioa!
¡Mi
pasión!



15€
Urteko

Egin zaitetz bazkide...STMren parte izateko eta museoa partekatzeko!

Sarrera museora eta erakusketetara • Inaugurazioetarako gonbidapena • Beste museoetan deskontuak... eta gehiago!
Egin zaitetz orain 2023rako bazkide eta hasi berehala disfrutatzen!

STM
San Telmo Museoa

 **DONOSTIA**
SAN SEBASTIÁN

 **donostia**
kultura

santelmomuseoa.eus